

ASPERGERRA LEHEN HEZKUNTZAKO GELETAN, INKLUSIORA ETA INTEGRAZIORA BIDERATUA

Psikologia eskola-gelan

GRADU AMAIERAKO LANA



Egilea: Gómez Ramírez, Sandra

Zuzendaria: Rodríguez Fernández, Arantzazu

2021

Laburpena

Aspergerren sindromea Espekto Autistaren Nahasteen (TEA) barruan kokatzen da, eta interakzionatzeko eta gizarte-harremanak ezartzeko zailtasunen, interes mugatuen eta jokabide-eredu estereotipatuen eta ez oso malguen presentziagatik bereizgarria da. Honengatik, sindrome hau duten haur gehienek arazoak dituzte lagunak egiteko eta gainerako ikasleekin ikasgelan integratzeko. Aspaldi, irakasleak hurrek ikasgaiak ikasi eta gainditzean zentratzen ziren, eta, denborak aurrera egin ahala integrazioa eta inklusioa gero eta gehiago sustatzen saiatu arren, gaur egun zaila da ikasgeletan aurrera eramateko esku-hartze oso bat aurkitzea. Haur hauen integrazioa lortzeko, ikasle hauek sozialki ezarritako gizarte-arauak ikastea beharrezkoa da, baina horrekin ez da nahikoa. Honez gain, gainerako ikasleak hezi behar dira, pertsona guztien ezberdintasunak onartzen eta normalizatzen ikas dezaten, eta irakatsi behar zaie arazoa ez dela aniztasuna, baizik eta intolerantzia eta intransigentzia. Lan honetan, Aspergerra duten haurren zailtasunak eta beharrak, haur batek sindrome hau izan dezakeela susmatuz gero eskolak egin beharrekoa eta haur hauek laguntzeko modua azalduta daude. Gainera, ikasgelan praktikan jartzeko esku-hartze baten proposamen oso bat dago, ikasleekin egiteko unitate didaktiko bat eta gurasoentzako aurkezpen bat dituen, Aspergerra duen haurraren ikaskideek sindrome hau normalizatzen lortzeko, eta horrela, inklusioa eta integrazioa sustatzeko.

Resumen

El síndrome de Asperger se sitúa dentro de los Trastornos del Espectro Autista (TEA), y se caracteriza por la presencia de dificultades para interactuar y establecer relaciones sociales, intereses limitados y modelos de conducta estereotipados y poco flexibles. Es por esto que la mayoría de niños con este síndrome tienen problemas para hacer amigos y amigas e integrarse en el aula con el resto del alumnado. Hace tiempo, el profesorado se centraba en que los niños y niñas estudiaran y aprobasen las asignaturas, y aunque con el paso del tiempo cada vez se intenta fomentar más la integración y la inclusión, a día de hoy es difícil encontrar una intervención completa para llevar a cabo en las aulas. Para conseguir la integración de estos niños y niñas, es necesario que aprendan las reglas sociales socialmente establecidas, pero con esto no es suficiente. Se necesita, además, educar al resto del alumnado para que aprendan a aceptar y normalizar las diferencias de todas las personas, y enseñarles que el problema no es la diversidad, sino la intolerancia y la intransigencia. En este trabajo están explicadas las dificultades y necesidades que tienen los niños y las niñas con síndrome de Asperger, qué debería hacer el colegio si hay sospechas

de que un niño o una niña pueda tener este síndrome y cómo se puede ayudar a estos niños. Además, incluye una propuesta de intervención en el aula que incluye una unidad didáctica para llevar a cabo con el alumnado y una presentación para los padres y madres, con la intención de conseguir que los compañeros y las compañeras del niño con Asperger normalicen este síndrome, y así, fomentar la inclusión y la integración.

Abstract

Asperger's syndrome is included in the Autism Spectrum Disorders (ASD), and is characterized by the presence of difficulties in interacting and establishing social relationships, limited interests and stereotyped and inflexible behaviour patterns. This is why most children with this syndrome have problems making friends and integrating in the classroom with the rest of the students. Some time ago, teachers focused on children studying and passing subjects, and although with the passage of time more and more attempts are being made to promote integration and inclusion, it is difficult to find a complete intervention to carry out in the classroom. To achieve the integration of these children, it is necessary that they learn the socially established social rules, but this is not enough. It is also necessary to educate the rest of the students so that they learn to accept and normalize the differences of all people, and to teach them that the problem is not diversity, but intolerance and intransigence. This work explains the difficulties and needs of children with Asperger syndrome, what the school should do if there are suspicions that a student may have this syndrome and how these children can be helped. It also includes a proposal for intervention in the classroom that includes a didactic unit to be carried out with the students and a presentation for parents, with the intention of getting classmates of children with Asperger syndrome to normalize this syndrome, and thus promote inclusion and integration.

Hitz gakoak: Aspergerra, Lehen Hezkuntza, integrazioa, inklusioa, unitate didaktikoa, eskuhartzea.

Aurkibidea

1. Sarrera eta justifikazioa	5
2. Sindromearen definizioa eta hurbilpen historikoa	6
2.1. Definizioa	6
2.2. Azalpen-teoriak	7
3. Epidemiologia	10
4. Nortzuk dira Aspergerra duten ikasleak	11
4.1. Zergatik dira ezberdinak	11
4.2. Nolakoak dira ikasle hauek	13
4.2.1. Interesen inguruko ezaugarriak	13
4.2.2. Sozializazioaren inguruko ezaugarriak	13
4.2.3. Komunikazioaren inguruko ezaugarriak	14
4.2.4. Errutinen inguruko ezaugarriak	14
4.3. Haur hauek dituzten zailtasunak	15
4.3.1. Zailtasunak eskolan	15
4.3.2. Zailtasunak lagunekin	17
4.3.3. Zailtasunak familiarekin	18
4.3.4. Zailtasun emozionalak	19
5. Zer egin behar da haur batek Aspergerra izan dezakeela susmoak izanez gero?	20
5.1. Alerta seinaleak gelan	20
5.2. Berritzegunearen protokoloa	21
5.3. Eskala australiarra	21
6. Aspergerra duten umeen beharrak. Nola lagundu eskolaren barruan?	23
6.1. Lan autonomoa	23
6.2. Edukien eskuratzea	23
6.3. Talde lana	24
6.4. Arreta	24
6.5. Gorputz Hezkuntza	24
6.6. Lagunak eta hizkuntza erabiltzeko modua	25
6.7. Emozioak eta gogo-aldarteak	26
7. Nola lagundu dezake familiak	27
7.1. Familiaren papera eskolan	27
7.2. Familiaren papera etxean	28
8. Aurkitutako programen gabeziak	29
9. Nire proposamena	31
9.1. Proposamenaren azalpena	31

9.2. Ikasleriaren maila	32
9.3. Metodologia	33
9.4. Lotura curricularra	34
- Konpetentziak	34
- Helburuak	35
- Edukiak	35
- Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak	36
9.5. Ikasleekin egiteko unitate didaktikoaren diseinua	37
9.6. Ebaluazio-prozesua	38
9.6.1. Irakasleak egin beharreko ebaluazioa	38
9.6.2. Ikasleen autoebaluazioa	38
9.6.3. Talde bakoitzak gainerako taldeen aurkezpenak ebaluatzeko heteroebaluazioa	39
9.7. Gurasoentzako aurkezpena	39
9.8. Kronograma/egutegia	39
10. Ondorioak	40
11. Bibliografia	42
12. Eranskinak	46
I. eranskina - Eskala australiarra	46
II. eranskina - Ikasleekin egiteko unitate didaktikoaren laburpen-taula	50
III. eranskina - Unitate didaktikoaren diseinua	51
IV. eranskina - Hirugarren saiorako galdetegia	61
V. eranskina - Hirugarren saiorako konpromisua	63
VI. eranskina - Laugarren saiorako egoeren txartelak	64
VII. eranskina - Irakasleak umeak ebaluatzeko erabiliko duen errubrika	66
VIII. eranskina - Ikasleek autoebaluazioa egiteko galdetegia	67
IX. eranskina - Talde bakoitzak gainerako taldeak ebaluatzeko tresna	69
X. eranskina - Gurasoentzako aurkezpena	70
XI. eranskina - Kronograma/egutegia	75

1. Sarrera eta justifikazioa

Lehen Hezkuntzan, ikasgela barruko ikaskuntzaz gain, hurrek euren gizarte-harremanetan eragina izango duten aldaketa garrantzitsuei egin beharko diete aurre (Gallego, 2012). Talde batean integratuta sentitzea eta lagunak sortzea erronka handia da edozein umerentzat, baina are zailagoa sozializatzeko zailtasunak dituztenentzat. Eskolan, gizarte-ingurune batean moldatzeko gaitasun sozial trebeagoa behar duten talde-jarduerak aurrera eramaten dira. Hala ere, talde-lana aurrera eramatea, harremanak ezartzea eta integrazioa lortzea zaila bihurtzen duten zenbait berezitasunak daude, adibidez, Asperger sindromearenak.

Eskoletan ikasleria ez da heterogeneoa, eta, ondorioz, ezin dira haur guztiekin baliabide berdinak erabili emaitza beraren zain. Hau ez zaie soilik ikasgaien edukiei aplikatzen, baita hurrek mundua hautemateko eta haien artean harremanak ezartzen saiatzeko moduari ere.

Hau guztia kontuan izanik, Lehen Hezkuntzako irakasleek Aspergerra duten umeek lagunak egiteko zailtasun handiak dituztela jakin behar dute, gaitasun sozialekin arazoak dituztelako. Ez hori bakarrik, gai honen inguruan informazioa izan behar dute eskolaren barruan agertzen diren alerta seinaleak interpretatzen jakiteko. Gainera, irakasleek gaiaren inguruan ezagutza izanez gero, gainerako ikasleei informazioa modu egoki batean transmititzeko gai izango dira, eta ondorioz, sindrome hau duten haurren bazterkeria saihestu daiteke.

Ikasketen hasieratik, gehien motibatu nauten eta gehien gustatu zaizkidan ikasgaiak psikologiarekin eta hezkuntza behar bereziekin lotutakoak izan dira, eta hau izan da GrAL-a gai honi buruz egiteko arrazoi nagusia. Hau kontuan izanik, garrantzitsua da azpimarratzea hezkuntza tradizionalen irakasleek arreta gehiago jartzen zutela haur hauek ikasgaiak gainditzean eta "arazorik ez sortzean" gainerako ikasleek ume hauen berezitasunak normalizatzean baino, inklusio-giroa sortzeko. Egia da urteak pasa ahala hezkuntzan dibertsitatea onartzeko, lantzeko eta normalizatzeko aldaketa esanguratsuak egon direla, baina oraindik bide luzea geratzen da. Horregatik, GrAL honen bidez, behar bereziak dituzten umeen integrazioa sustatzen lagundu nahi nuen, zehazki, Aspergerra duten umeen integrazioa, euren jokaeraren ezaugarri ezberdinak direla eta, harremanak ezartzea zaila egiten zaielako.

2. Sindromearen definizioa eta hurbilpen historikoa

2.1. Definizioa

Hasteko, DSM-5TRn Aspergerren sindromea Espekto Autistaren Nahasmenduen barruan ez dagoela agertu arren, Europan oraindik ez da bereizketa hori egin; beraz, lan hau DSM-4an oinarrituko da, eta ondorioz, sindrome honi buruz Espekto Autistaren Nahasmenduen barruan egongo balitz bezala hitz egingo dela aipatu beharra dago.

Esan bezala, Aspergerren sindromea Espekto Autista Nahasmenduen (TEA) barruan kokatzen da. Espekto Autistaren Nahasmenduek nahasmenduen talde heterogeneo bat osatzen dute. Nahasmendu horiek haurtzaroan hasi eta bizitza osoan irauten dute, elkarrekotasun sozialean, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioan eta portaeraren eredu errepikakor eta murriztaileetan eragina izanik (Hervás et al., 2012).

Aspergerren sindromea nahiko berria da; termino hau gehiago erabili da azken hamabost urteotan. Hans Asperger, Vienako pediatra bat, 1940ko hamarkadan ezaugarri kliniko horiek zituen haur-talde bat zehaztasun handiz deskribatu zuen lehen izan zen. Hala ere, Aspergerren sindromea (SA) *Manual Estadístico de Diagnóstico de Trastornos Mentales*-en, "ofizialki" onartu zen lehen aldia 1994ko laugarren edizioan izan zen. Honez gain, orain arte, sindrome honi buruzko artikulua zehatz gutxi daudela eta, seguruenik, Aspergerren hasieran uste zena baino askoz ohikoagoa dela esan beharra dago (Bauer, 2006).

Aspergerren sindromeak TEA-ren barruan dagoenez, ezaugarri berdinen presentzia ekartzen du, hau da, haur hauen komunikaziorako zailtasunak, interakzio sozialerako zailtasunak, interes murriztuak eta jokabide-eredu ez oso malgua eta estereotipatua dituzte (Málaga, 2014).

Bauerrek (2006) azaltzen duen bezala, Aspergerren sindromea Espekto Autistaren zati moderatuena eta funtzionamendu-maila handienekoa da. Aspergerren sindromeak TEA-ren barruan dagoenez, ezaugarriak partekatzen dituzte. Ondorioz, Aspergerren barruan, desbideraketak edo anormaltasunak daude garapenaren hiru alderdi zabaletan: lotura eta trebetasun sozialak; hizkuntza komunikazio-helburuekin erabiltzea; ezaugarri errepikakor edo saiagarriekin lotutako portaera- eta estilo-ezaugarriak (interes-sorta mugatua baina bizia).

Aspergerren sindromea, espektro autistaren barnean beste nahasmendu batzuekin alderatuta, gaitasun kognitibo gehiago (adimen-kontziente normalenak, eta are maila altuenetan ere) eta normaltasunetik hurbilago dagoen hizkuntza-maila izateagatik bereizgarria da. Horregatik, ikertzaile batzuek, "autismo-ukitua duten haurrak" deitzen diete. Ondorioz, batzuetan haur batek Asperger duela jakitea zaila izaten da. Izan ere, ebaluatu zuen pertsonaren eta herrialdearen arabera, goi-mailako autismoarekin (HFA) edo garapenaren nahasmendu orokorrarekin (PDD) okertzea gerta daiteke. Garapeneko espezialistek oraindik ez dute adostasunik lortu Aspergerren eta goi-mailako autismo (HFA) deritzonaren arteko desberdintasunei buruz; izan ere, batzuk ziur daude ez dagoela alde nabarmenik bien artean (Bauer, 2006).

2.2. Azalpen-teoriak

Urteetan zehar, Aspergerarekin bizi diren pertsonen zailtasun batzuk izatearen zergatiak azaltzeko teoria asko sortu dira, nahastearen sintomatologia azaltzen saiatzen direnak. Azalpen-teoria nagusien inguruan, bost teoria daude, eta hauek azaltzeko, Cobok eta Morán-ek (2014) idatzitako liburuan oinarrituko gara:

- Adimenaren teoria

Termino honek pertsonen gure estatu mentalen eta gainerakoen barne-irudikapen bat ezartzeko dugun gaitasuna adierazten du (hala nola desioak, sinesteak, asmoak...). Eratzen dugun irudikapen mental hori berezkoa da, eta ondorioz, egoera batzuk automatikoki interpretatzeko gai gara. Aitzitik, TEA-ren barruan dauden pertsonen gizarte-eredu horiek ikasi behar dituzte, behatze hutsagatik ez baitira gai horiek eskuratzeko.

Hau dela eta, Aspergera duten haurrek egoera jakin batzuetan esplizituki geratzen ez diren zenbait egoera ulertzeko gai ez direnez zailtasunak dituzte, esate baterako: besteen jokabidea aurreikusteko; elkarrizketa batean zentzu bikoitza interpretatzeko, txantxak, txisteak eta ironia ulertzeko; elkarrekikotasun emozional txikia dute; gizarte-seinaleekiko sentzibilitate gutxi dute; haiek hitz egiten ari direnean entzuten ari diren pertsonen ulermen-eta interes-mailaz jabetzeko ezintasuna dute; eta komunikazio-arauak ulertzeko zailtasunak dituzte.

- *Funtzio betearazlearen defizitaren teoria*

Funtzio betearazleak eragiketa kognitiboen multzoak dira, eta eragiketa horien bidez problemak ebazteko estrategia batzuk aktibatzen dira, helburu bat lortzeko asmoz. Teoria honen bidez, Aspergerren sindromea duten pertsonen eguneroko portaeran ikusten diren muga batzuk azaltzen saiatzen da, hala nola:

- Antolaketa-defizita: zailtasunak dituzte urratsak sekuentziatzeko.
- Planifikazio-defizita: planak egiteko eta ondoren jarraitzeko zailtasunak.
- Arreta-defizita: estimulu interesgarriari arreta selektiboa dute, eta estimulu garrantzitsuak garrantzirik gabekoetik bereizteko arazoak dituzte.
- Ikasteko motibazio falta: ikasteko motibazio eskasa interesatzen ez zaien alderdiak ikasi behar dituztenean.
- Erantzun-inhibizioa: jarrera bat une egokian eteteko erresistentzia.
- Orokortzea: problema-ebazpenerako estrategiak ikasteko zailtasunak, eta soluzioak arautzen dituzten printzipioen abstrakzio-arazoak. Egoera berri batean daudenean, orokortasunik ezak frustrazioa eta egiten ari diren lana uztea eragiten du.
- Arrazoibide zehatz bat erabiltzen dute abstraktuaren ordeztu, eta arrazoibide literala erabiltzen dute, nahiz eta adimen normala izan.
- Lan-memoria: jarduera bat gauzatzeko egin beharreko urratsak gogoratzeko arazoak.
- Buru-zurruntasuna: malgutasunik eza egoera berari buruzko ikuspegi desberdinak hartzeko. Gainera, gai jakin batzuekiko kezka handia izaten dute, eta horrek beste jarduera batzuetan arreta jartzea zaildu egiten die. Elkarrizketako gaiak euren interesen arabera monopolizatzen dituzte.
- Jokabidearen kontrola: jarduera bat egiten duten bitartean errendimenduaren kontrol eskasa.

- *Koherentzia zentralaren defizitaren teoria*

Koherentzia zentralaren terminoak gizakiak informazioa modu globalean eta testuinguruan prozesatzeko duen joera adierazten du, xehetasunak gogoratu ordeztu informazioa modu orokor batean gogoratzeko. Aldiz, TEA duten pertsonak objektu edo istorio baten

xehetasunetan eta zatietan oinarritutako prozesamendua dute. Irudi edo egitura globalaz ahazten dira, eta ez dute testuinguruaren informazioa integratzen zentzu orokor eta koherentea bilatzeko. Ondorioz, lortzen den informazioak testuingurutik kanpo duen esanahia du.

- *Eskuineko hemisferioaren disfuntzioa*

Garuneko eskuineko hemisferioak informazio biso-espaziala eta hitzik gabeko komunikazioaren alderdi asko kontrolatzen ditu. Hemisferio hau informazioa modu globalean aztertzeke gai da, testuingurua kontuan hartuz, solaskidearen keinuak, ahots-tonua eta aurpegi-keinuak modu egoki batean interpretatuz.

Aspergerra duten pertsonen eskuineko hemisferioan disfuntzio batekin bateragarriak diren ezaugarri zentral batzuk dituzte, eta horrek hurrengo zailtasun hauek ekar ditzake: Hitzezkoa ez den komunikazioa ulertzeke zailtasunak (intonazioa, hizketaren bolumena, aurpegiko eta gorputzkeke keinuak); neurritz gaineke erantzun emozionalak edo testuinguruarekin bat ez datozenak; egoera berrietara egokitzeko zailtasunak (zurruntasuna); ikusmena eta espazioa antolatzeke gaitasun mugatuak; errendimendu txikia informazio biso-motorra integratzea eskatzen duten zereginetan; eta gizarte-harremanetarako trebetasun gutxi.

- *Enpatizazioaren eta sistematizazioaren teoria*

Teoria honek TEAREN barruan dauden pertsonen gizarte- eta komunikazio-arloan dituzten zailtasunei egiten die erreferentzia (enpatizatzeke gaitasunean bereziki), bai eta sistematizatzeke gaitasunean dituzten indarguneei ere (TEA duten pertsonen TEARIK ez dutenek baino gaitasun handiagoa dute sistematizatzeke). Enpatia, testuinguru komun batean, beste pertsona batek senti dezakeena hautemateke gaitasun kognitiboa da. Aldiz, sistematizazioa sistema bat arautzen duten arauak bilatzeko eta aurkitzeke gaitasuna da, nola eboluzionatuko duen aurrerateke. Hau kontuan izanik, enpatiaren eta sistematizazioaren arteke desadostasunak pertsona batek TEAREN bat garatzeko duen joera azalduko luke.

3. Epidemiologia

Bauerrek (2006) azaltzen duen bezala, ikerketa guztiak bat datoz Aspergerren sindromea askoz ohikoagoa dela mutilengan neskengan baino, baina honen zergatia oraindik ezezaguna da. Kasu batzuetan, osagai genetiko argi bat egoten da, gurasoetako batekin (maizago aita), Aspergerren koadro oso bat edo haren ezaugarri bereizgarri batzuk dituen; faktore genetikoak Aspergerrean maizago agertzen dira autismo klasikoaren kasuan baino.

Ildo beretik, batzuetan, hurbileko ahaideen artean autismoaren inguruko familia-historia argi bat existitzen da, eta horrek Aspergerra eta autismoa batzuetan elkarren artean lotutako sindromeak direla berresten du.

Orain arte egin diren azterketa hoberenek Aspergerra autismo "klasikoa" baino askoz maizago gertatzen dela iradokitzen dute. Aspergerraren egindako zenbatespenen arabera, 10000 pertsona bakoitzeko, Aspergerra duten 20-25 pertsona daude. Hau are egiazkoagoa da eskola-ingurune normaletan, Aspergerra duten haur gehienak hemen aurki ditzakegu, hau da, Manzanok (2008) ziurtatu zuen bezala, 1000 haur bakoitzeko, sindrome honek 3-7 haurrei eragiten die.

Izan ere, Gillbergen taldeak Suedian egindako biztanleriaren azterketa epidemiologiko arduratsu batek ondorioztatu zuen aztertutako haurren ia %0,7-k koadro kliniko argia zutela edo, neurri batean, Asperger baten existentzia iradokitzen zuela. Honez gain, Aspergerraren ezaugarri asko zituzten haurrak espektroaren mutur moderatuenaren barne sartzen baziren, hau da, "normaltasunarekin" duen mugan, sindrome hau maiz agertzen zela aipatu beharra dago (Bauer, 2006).

4. Nortzuk dira Aspergerra duten ikasleak

4.1. Zergatik dira ezberdinak

Lan hau diagnostikoa ez izan arren, etorkizun bateko irakasle bezala, sindrome honen inguruan informazioa izatea eta ezaugarriak ezagutzea oso garrantzitsua da, eskolan alerta seinaleak ikusiz gero hauek kontuan hartzeko, oharkabean pasa ez daitezten. *Manual Estadístico de Diagnóstico de Trastornos Mentales* (DSM-5TR) agertzen den bezala, Aspergerra duten hurrengo ezaugarrien presentzia dute:

1. Interakzio sozialaren aldaketa kualitatiboa, gutxienez hurrengo bi ezaugarrien bidez adieraztua:
 - a. Hitzezkoak ez diren hainbat portaeren erabileraren aldaketa nabarmena, hala nola begi-kontaktua, aurpegi-adierazpena, gorputz-jarrerak eta interakzio sozialerako keinu arautzaileak.
 - b. Subjektuaren garapen-mailan egokiak diren lankideekin harremanak izateko ezintasuna.
 - c. Gozamenak, interesak eta helburuak beste pertsona batzuekin partekatzeko berezko joera ez izatea (adibidez, beste pertsona batzuei objektu interesgarriak ez erakustea edo ekartzea).
 - d. Elkarrekikotasun sozial edo emozionalik eza.
2. Portaera, interes eta jarduera murriztaile, errepikakor eta estereotipatuen ereduak, gutxienez ezaugarri hauetako batek adieraziak:
 - a. Ohiz kanpoko interes-eredu estereotipatu eta murriztaile batekiko edo batzuekiko kezka xurgatzailea, bai intentsitateagatik edo helburuagatik.
 - b. Funtzionalak ez diren errutina edo erritual espezifikoek atxikimendu zorrotza.
 - c. Manierismo motor estereotipatuak eta errepikakorrak (adibidez, eskuak edo hatzak astindu edo biratzea, edo gorputz osoaren mugimendu konplexuak).
 - d. Objektuen zatiekiko etengabeko kezka.

3. Nahasmenduak norbanakoaren jarduera sozial, laboral eta beste arlo garrantzitsu batzuen narriadura esanguratsua eragiten du.
4. Hizkuntzaren atzerapen orokor esanguratsurik ez dago (adibidez, 2 urterekin hitz errazak erabiltzen dituzte; 3 urterekin, komunikazio-esaldiak erabiltzen dituzte).
5. Ez dago atzerapen nabarmenik ezagutzaren garapenean, ezta adinak berezko dituen autolaguntzako trebetasunen garapenean, egokitze-portaeran (gizarte-elkarrekintzaz ezberdina) eta haurtzaroan inguruneari buruzko jakin-minean.
6. Ez ditu betetzen garapenaren beste nahasmendu orokor baten edo eskizofreniaren irizpideak.

Eskuliburu honetan agertzen diren ezaugarriez gain, Maristany-k (2002) ezaugarri hauek gehitu zituen:

1. Itxura fisiko normala.
2. Batzuetan, eskurapen motorraren eta ibilera autonomoaren eskurapenaren atzeratua.
3. Trakestasun motorra, arazoak motrizitatearekin.
4. Ohiz kanpoko mugimenduak ager daitezke, batez ere urduritasuna edo estresa dagoenean, hala nola begiak edo eskuak mugitzea, muekak edo jauziak.
5. Orokorrean, indar gutxi eskuetan.

Amaitzeko, Ramírez-ek (2011) aipatu zuen bezala, alderdi sentsozialei dagokienez, Aspergerren sindromea duten haurrek honako ezaugarri bereziak dituzte:

1. Entzumen-sentsibiltate handia dute (ez zaie gustatzen zarata handiak edo ustekabekoak entzutea).
2. Ukimen-sentsibiltate handia, beraz, ez zaie gustatzen besteen gorputzeko atal batzuk ukitzea edo besteek haien gorputz atal batzuk ukitzea.
3. Usaimen-sentsibiltate handia (beraiantzat usain sendo batzuk, lurrin batzuk eta garbigarriak desatseginak dira).
4. Dastamen-sentsibiltate handia (zaila da zapore edo testura berriak sartzea).

5. Minarekiko sentsibilitate handia (oinazeari erantzun eskasa edo neurritz kanpoko erantzunak).
6. Ikusmen-sentsibilitate handia (argi- edo kolore-maila jakin batzuekiko gehiegizko sentikortasuna).

4.2. Nolakoak dira ikasle hauek

4.2.1. Interesen inguruko ezaugarriak

Bauerrek (2006) dioten bezala, Aspergerren sindromearen bereizgarritasun nabariena eta haur hauek bereziak eta liluragarri egiten dituen ezaugarria "interes bereziko" eremuak dira. Autismo tipikoan interesak objektuetan edo objektu-zatietan oinarritzen dira, aldiz, Aspergerrean, interesak maizago arlo intelektual espezifikoetan zentratzen dira, hala nola, matematika, alderdi zientifikoak, irakurketa edo historia- eta geografia-alderdi batzuk, mapak, denbora, astronomia, hainbat makina mota edo autoen, trenen, hegazkinen edo suzirien alderdiak, etab. Umeak haien intereseko gai horri buruz ahal duten guztia ikasi eta elkarrizketetan edo jolas libreko jardueretan azaleratzen saiatzen dira.

Haur askok, denbora pasa ahala, euren lehentasunezko interesguneak aldatu egiten dituzte, kezka baten ordeztu beste bat hartuz. Hala ere, haur batzuen interesak helduarora arte iraun ditzakete, eta kasu askotan, haurtzaroaren lilura, helduen ikasketen oinarria izan da, unibertsitateko irakasle asko barne.

4.2.2. Sozializazioaren inguruko ezaugarriak

Aspergerrearen beste ezaugarri nagusienetako bat sozializazio-falta da. Nahiz eta irakasleek eta gurasoek Aspergerrearen duten haurrak maiz "beren munduan" daudela sentitzea, haur gehienek sozialki egokitzeko eta lagunak izateko nahia adierazten dute, behintzat, eskolara joaten diren unetik. Askotan, euren gizarte-zailtasunengatik erabat zapuztuak eta ilusiorik gabe sentitzen dira. Euren arazoa ez da elkarreragin falta, baizik eta elkarreraginak ezartzeko eraginkortasun falta. Badirudi sozialki konektatzeko modua jakiteko zailtasunak dituztela. Honen ondorioz, Aspergerrearen duten haurrek egoera sozialak gaizki interpretatzeko joera dute, eta gainerakoek askotan haien elkarreraginak eta erantzunak "arroztzat" hartzen dituzte (Bauer, 2006).

4.2.3. Komunikazioaren inguruko ezaugarriak

Honez gain, Bauerrek (2006), hizkuntza-trebetasun "normala" Aspergerra beste autismo eta garapenaren nahasmendu orokorraren forma batzuetatik bereizten duen ezaugarria izan arren, Aspergerra duten hurrek hizkuntza erabiltzeko moduan desberdintasun nabariak daudela aipatzen du.

Gaitasun mekanikoagoak indartsuenak dira, askotan oso indartsuak. Euren prosodia (ahozko hizkuntza, hala nola hizketaren bolumena, intonazioa, inflexioa, erritmoa eta abar) nahiko arraroa da maiz. Batzuetan, euren hizkera formalegia eta pedantezia entzuten da, eta gehiegizko literaltasunekin interpretatzen dituzte gauzak. Honez gain, hizkuntzaren ulermenak konkreturantz jotzen du, eta ondorioz, gero eta arazo gehiago agertzen dira hizkuntzak abstrakzio-maila handiagoa hartzen duen heinean.

Honetaz aparte, hizkuntza-trebetasun pragmatikoak edo elkarrizketakoak, sarritan, ahulak izaten dira, hitz egiteko txandarekin arazoak izaten dituztelako, interes bereziko eremuez hitz egiteko joera dutelako edo elkarrizketa batean "eman eta hartu" erritmoari eusteko zailtasunak dituztelako. Jarraitzeko, Aspergerra duten haur askok zailtasunak izaten dituzte umorearekin, ez dituzte txisteak ulertzen edo garaiz kanpo barre egiten dute. Bukatzeko, sindrome hau duten haur batzuk hiperberbalak izaten dira, eta horrek haien interakzio sozialetan eragin dezakeenik eta besteak baztertu ditzakeenik ez dute ulertzen.

4.2.4. Errutinen inguruko ezaugarriak

Cotok (2013) dioen bezala, Aspergerra duten haur txikienentzat, batzuetan errutinetako aldaketak amorrualdi eta negar bihurtzen dira. Irakasle berri bat etortzen denean, aztoratzen eta oso urduri jartzen dira, eta jarduera berriak egiteari uko egiten diote.

Honez gain, berez alternatiba ezberdinak sortzeko zailtasunak dituzte. Horregatik, aurreikus daitezkeen errutina eta giroek segurtasuna eta lasaitasuna ematen diete. Irudimen eta sormen gutxi izaten dute jokoei dagokienez. Jolas mekanikoak nahiago dituzte. Azkenean, ikaskideek bezala, jolas sinbolikoa garatzen dute, baina geroago. Joko edo ataza baten funtzionamendua ulertu dutenean, errutinazkoak eta errepikakorrak bihurtzen dira, beti modu berean jokatu nahi dute eta arauak malgutasunik gabe aplikatzen dituzte. Aspergerra duten pertsonak ez daude prestatuta mundu malgu baterako, aldakorra eta salbuespenez betea, gurea bezala. Galduta eta nahastuta sentitzen dira. Inguruko funtzionamendua ulertzen lagunduko dien jarraibideen antzeko zerbait behar dute.

Ezarrita dauden arauak behar dituzten jarraibide horien antzekoena dira. Horiekin eta errutinekin eroso eta seguru sentitzen dira. Hertsiki atxikitzen zaizkie, eta batzuetan obsesiboki ere betetzen dituzte. Gainera, arauak hain zorrotz betetzeak ondorio sozialak ekartzen dizkie, eta ez dira honetaz kontziente.

4.3. Haur hauek dituzten zailtasunak

Aurreko ezaugarriak kontuan izanik, sindrome hau duten umeei hainbat zailtasun eduki ditzakete bizitzako arlo ezberdinetan:

4.3.1. Zailtasunak eskolan

- Lan autonomoa

Cotok (2013) dioen bezala, lan autonomoak ikasleak bakarrik lan egin behar duen denbora esan nahi du, heldu batek etengabe gainbegiratu gabe, adibidez, gelan jardueraren bat egiten duenean, azterketa egiten duenean, etab. Ikasle bati jarduera bat egiteko eskatzen diogunean, helburu bat betetzeko eskatzen diogu. Bere lan autonomoa helburu horretara iristeko beharrezkoak diren tarteko urrats guztiak egitean datza.

Alabaina, Aspergerra duten umeak erdiko urrats horietan galtzen dira, planifikatzeko eta antolatze zailtasunak dituztelako. Haien arreta ez da batere sendoa, eta edozein estimulu jasoz gero, arreta galtzen dute, oso perfekzionista izan arren. Haientzat, lana astuna bihurtzen da eta irakasleak haurra alferra dela eta ahalik eta lan gutxien egiteko asmoa duela pentsa dezake. Jarraitzeko, frustrazioarekiko erresistentzia bere adineko edozein haurrena baino askoz txikiagoa da. Ariketa erraztasunez ateratzen ez zaiela edo espero duten emaitzarik ez dutela ikusten badute, huts egiten dute, batzuetan, antsietate-maila handiak izanez, eta blokeatu egiten dira. Bukatzeko, motrizitate fina guztiz kontrolatzen ez dutenez, lan egiteko ahalegin handiak egin behar dituzte, eta horrelako egoerak ia egunero errepikatzen direnean, autoestimuan eragina izaten du.

- Talde lana

Orokorrean, ikaskuntza kooperatiboak ondorio positiboak ditu Aspergerra duen eta gainerako ikaskideengan, Gallegok (2012) azaldu zuen bezala. Dena den, talde lana egiterakoan, zailtasunak biderkatzen dira. Alde batetik, lehen aipatu den bezala, planifikatzeko eta antolatze zailtasunak dituzte, eta bestetik, erlazio sozialek parte hartzen

dute, ume hauen zailtasun handienetako bat. Batzuetan, beste umeek ez dute Aspergerra duen umearekin lan egin nahi, beraz, gerta daiteke ume hau lana bakarrik egitea, edo bestela, irakasleak talde batean sartzea.

Taldearen barruan dagoenean, gizarte-ingurune guztietan bezala, ezagutzen ez dituen idatzi gabeko arau asko daude. Ez du besteen asmoez ohartzeko gaitasunik; beraz, lankideren batek engainatu nahi badu, zailtasun handirik gabe egin ahal izango du. Honez gain, ume hauek taldean lan egiteko gaitasunik ez dute, hala nola eztabaidatzea, besteen ideiak entzutea, euren ikuspuntua aldatzeko gai izatea, akordio batera iristea, etab. Horren ondorioz, taldeko lan-esperientzia frustragarria izan daiteke lankideentzat ere. Ez da harrizkoa gaizki-ulertuak eta gatazkak sortzea (Coto, 2013).

- *Edukien eskuratzea*

Aspergerra duen ikasle baten eduki akademikoetara hurbiltzeko modua, neurri handi batean, bere intereseko arloaren arabera izango da (intereseko arloaren barruan dagoen ala ez). Haren errendimendua oso irregularra da, eta motibazioak asko baldintzatzen du. Ume hau bere interes eremuan mugitzen ez denean, zailtasunak izaten ditu. Horietako bat, koherentzia zentralaren defizita da. Gabezia hori dela eta, oso zaila da edukiei zentzu orokorra ematea eta haietatik ideia orokor edo sintesi bat ateratzea (Cobo eta Morán, 2014). Haietzat, datu-multzo bat dira, eta gutxi gora behera, loturarik gabe biltegitratzen dituzte. Nolanahi ere, ume hauek ulermen globaleko zailtasun horiek oroimen onarekin konpentsatzeko gai dira, haien indarguneetako bat xehetasunetarako memoria mekaniko ona da. Ohiz kanpoko memoria mekanikoa izateaz gain, kontzentrazio handia mantentzeko gai dira, baina lehen aipatu den bezala, umearen interes eremuetan oinarritua (Thomas et al., 2004).

- *Arreta*

Cotok (2013) esaten duen bezala, Aspergerra duten umeek zailtasunak dituzte arreta 20 minutu jarraian baino gehiago mantentzeko. Honez gain, oso zaila egiten zaie arreta aldi berean bi fokutan banatzea (adibidez, aldi berean idaztea eta entzutea). Gainera, garrantzitsuak ez diren estimuluak inhibitzeko arazoak dituzte. Iristen zaien edozein erantzun-bulkada kontrolatzeko tresnak falta zaizkie. Hau da, inguruko edozer gauzari atentzioa ematen diote intentsitate berarekin, eta ondorioz, erraz distraitzen dira.

Kontuan hartu behar da profil hau izugarri aldatzen dela ikaslea bere intereseko gaiaren barruan dagoenean. Orduan, arretarekin dauden arazoak guztiz kontrakoak dira, haien arreta-gunea aldatzea asko kostatzen baita. Honengatik, irakasleak ikasleak Aspergerra duela ez dakienean, oso erreza da errendimendu ezberdin hau gaizki interpretatzea, hau da, ikaslea alferra eta nagia dela, heldua desafiatzen duela edo, familiak mizke hazi duela (eta horregatik uko egiten diola interesatzen ez zaion zerbait egiteari) pentsatzea ohikoa da.

- *Motrizitatea eta Gorputz Hezkuntza*

Aspergerra duten pertsonak mugimendu eta martxa autonomoko eskurapenetan atzerapen bat erakusten dute. Orokorrean, Aspergerra duten umeei ez zaie Gorputz Hezkuntza ikasgaia gustatzen. Alde batetik, Aspergerra duten pertsonak eremu motorrean eragina dute, eta motrizitatearekin arazoak dituzte, bai lodian bai finan. Mugimendu deskoordinatuak dituzte. Korrika eta salto egiteko traketsak dira, zailtasunak dituzte jaurtiketa/harrera jardueretan, koordinazioarekin eta erritmoari jarraitzeko (Maristany, 2002). Oro har, modu berezian mugitzen dira, eta, beraz, kirol-jardueretan ez dira oso onak. Umea zailtasun horietaz konturatzen da, eta horrek autoestimua baxua izatea eta irakasgaiaren berezko lanen aurrean frustrazioa sortzea eragiten die.

Beste aldetik, zailtasun sozialak eta arauak ulertzeko zailtasunak gehitzen dira. Jolasen arauak ulertzeko zailtasunak dituzte, edota gerta daiteke ume hauek arauen interpretazio propio bat egitea, eta ondorioz, ez dute ulertzen zergatik beste umeez ez dituzten arauak betetzen. Horrek frustrazioa eragiten die. Gatazkaren bat gertatuz gero, ume hauek ez dituzte gatazka ebazteko gaitasun egokiak. Haserretu daitezke, eta ondorioz, iraindu. Ikaskideek, tranpa egiten duela eta galtzen duelako haserretzen dela leporatuko diote, baina ume honen ustez, besteek gaizki jolasten ari ziren (Coto, 2013). Gainera, Gorputz Hezkuntzan gizarte-elkarrekintza ugari gertatzen dira; izan ere, haur hauek gizarte-estimulu horiek guztiak prozesatzeko energia handia behar dutenez, ikaslea blokeatu egin daiteke, edo egoerarekin bat ez datozen portaerak erakusten hasi. Gainerako haurrek portaera horiek gauza ezberdin eta "arraro" gisa ikus ditzakete eta ondorioz, barre egin (Jorreto, 2012, García aipatua, 2018).

4.3.2. Zailtasunak lagunekin

Aurretik aipatu den bezala, Aspergerra duten umeez hizkuntza erabiltzeko modu berezi bat dute. Honek, erlazio interpersoneletan eragina izaten du, elkarriketaren kontrola izaten baitute, haien berdinekin hitz egiteko beti gai berdina erabiliz. Honez gain, euren hizkera

formalegia eta pedanteegia entzuten da, eta ondorioz, izan daiteke gainerako hurrek haur hau arrarotzat hartzea eta harekin hitz egin nahi ez izatea (Bauer, 2006).

Hau dela eta, Cotok (2013) azaltzen duen bezala, batzuetan zapuztuta sentitzen dira, besteek azkenean baztertu egiten baitituzte, ahalegin ugari egin arren. Aspergerra duten hurrek arazoak dituzte informazio inplizitua antzemateko, hala nola hitzik gabeko hizkuntza, ahots-tonuak, keinuak, aurpegi-keinuak, etab., eta ondorioz, zaila da beste pertsonak nahi dutena identifikatzea, haien jarrera, besteen jarreraren arabera aldatzeko. Lehen Hezkuntzan, ikaskideekin harremanak izaten saiatzen dira, euren adineko haur guztiak bezala lagunak izateko beharra dute. Saiakera horietan erraza da gatazkak eta gaizki-ultertuak gertatzea. Hurbilketak baldarrak eta zailak dira, ez dute interes komun gehiegi izaten. Besteekin modu zurrunean jokatu nahi dute, euren arau propioen arabera eta porrotak eta tranpak gaizki eramaten dituzte. Batzuetan, lagunak izateko beharrak eraginda, beste umeengana hurbiltzen dira etengabe, eta ito egiten dituzte. Askotan, ikaskideek eta lagunak baztertu egiten dituzte, "jarrera ezberdinak" dituztelako. Aspergerra duten hurrek, nekatuta eta frustratuta, batzuetan bakarrik egotea nahiago du, eta besteengana hurbiltzen ez da saiatzen.

Honez gain, autoreak azaltzen duen bezala, gehienetan, lagunak nahastuta sentitzen dira ulertzen ez dituzten portaera eta jarreraren aurrean. Mutila edo neska txikitatik ezagutzen dutenean, askotan, haren berezitasun guztiak bere nortasunari dagokion zerbait bezala onartzen dituzte. Kasu horietan ere, berdintzat hartzen duten lagun baten jarrera eta portaera arraroen aurrean nekatu egiten dira, batzuetan iraingarriak edo kaltegarriak baitira. Gainera, jolastokian, ume hauek ezagutzen ez dituzten idatzi gabeko arau sozial ugari daude. Patioan, haur guztiek egin behar dutena dakiten bitartean, sindromea duen umeak espazio horretan egin behar duena ez daki. Haur hauen interesak ez datoz bat euren berdinen interesekin, eta, sarritan, gainerako hurrek jolas sozial eta sinboliko bat dute, Aspergerra duten hurrek ulertzen ez dutena. Bestalde, beste umeek pertsona arraro eta gatazkatsutzat hartzen dute, eta modu batera edo bestera arazoak emango dizkiela uste dute. Ez dute ulertzen zergatik jokatzen duen horrela. Azkenean, saihesten edo bakarrik jolasten uzten dute.

4.3.3. Zailtasunak familiarekin

Batzuetan, hurrek gurasoek aurre egiten ez dakiten zailtasunak izaten dituzte. Aspergerren sindromea duen seme-alaba bat izanez gero, jokatze modua erabakitzea zaila izan daiteke, egoera jakin batzuetan zalantzak eta arazoak sortzen baititu. Haur horien gurasoak,

batzuetan errudun, atsekabetuta eta frustratuta sentitzen dira, euren seme-alaba nola lagundu ez dakitelako. Haurra hainbat arlotan orientatzen lagundu behar dute, eta, aldi berean, haiek orientazioa behar dute (León eta Díaz, 2012).

Díaz-ek (2014) esan zuen bezala, haur hauek batzuetan arreta osoa behar dute, eta gurasoei anai-arrebei arreta emateko, bikotekako bizitzarako, familiako aisiarako edo gurasoen proiektio profesionalerako denbora kentzen diete. Adimenaren teoriaren (Cobo eta Morán, 2014) zailtasunak direla eta, batzuetan berekoiak dirudite, euren nahiak familiaren nahien gainean jartzeko joerarekin.

Honengatik, sindrome honi buruzko ezagutza handiagoa behar da, sindromea familiarekin nola landu daitekeen jakiteko. Gurasoek laguntza lortzeko duten beharra ezagutu eta ulertu behar da, geroago, haiek euren seme-alaba laguntzeko gai izateko (León eta Díaz, 2012).

4.3.4. Zailtasun emozionalak

Aurreko puntuetan, Aspergerra duten umeek hainbat arazo emozional izaten dituztela aipatu da. Haur hauei emozionalki gehien eragiten diena harreman sozialak ezartzeko duten zailtasuna da. Askotan, haien sozializazio-arazoengatik frustatuta sentitzen dira eta ilusiorik gabe sentitu daitezke (Bauer, 2016). Ume hauek hainbat arlotan frustatu eta galdu egiten dira, orokorrean haien ingurunean gertatzen ari dena ulertzen ez dutelako eta haien zailtasunez ohartzen direlako. Gainera, Aspergerraren ezaugarri komun bat autoirekierarako zailtasuna da, hau da, baten barne-sentimenduez hitz egiteko arazoak dituzte. Hau guztia, sindromea duten umeen autoestimuan izugarritzko eragina izaten du, eta ondorioz, batzuetan bakartzen dira, saiakera gehiago egiteko gogoak galtzen dituztelako. Haurra oso ondo jabetu daiteke ikasgelan jokabide-kodeei jarraitu behar zaiela eta besteek bezala jokatuz oharkabean pasatzen saiatu behar dela. Konformatzeko eta autokontrolari eusteko presio horrek tentsio emozional handia eragin dezake (Attwood, 2002).

Honez gain, ume hauek zailtasunak dituzte besteen emozioak eta asmoak ulertzeko; gutxi egituratutako egoerak beste pertsona batzuekin batera landu behar dira, beraientzat bereziki zaila baita. Egoera hauek frustrazio-maila handiak eragin ditzakete, baita amorruleherketak ere (León eta Díaz, 2012).

5. Zer egin behar da haur batek Aspergerra izan dezakeela susmoak izanez gero?

5.1. Alerta seinaleak gelan

Irakasle batek haurren jokaerei arreta jarri behar die, izan ere, kasu batzuetan Lehen Hezkuntzan nahasmendu batzuen lehenengo alerta seinaleak agertzen dira, eta, beraz, irakasle batek adi egon behar du, hauek kontuan hartzeko. Cotoen (2013) arabera, hauek dira Lehen Hezkuntzako irakasle batek Aspergerra duen haur baten jarreran ikus ditzakeen alerta-seinaleak:

- Jolasorduan bakarrik jolasten du, korrika egiten du edo bakarrik ibiltzen da patioan. Batzuetan ikaskide-talderen batengana hurbiltzen da eta haiek egiten duten gauza bera egiten saiatzen da, baina ez du maila berean parte hartzen.
- Patioan ez du jolastea gustatzen zaion lagunik edo lagun-talderik.
- Zenbait ikastaro elkarrekin egon izan arren, oraindik ez daki ikaskide batzuen izenak.
- Gaizkiulertuengatik ikaskideekin liskarrak izateko joera du.
- Etengabe defentsiban dago, beste hurrek enbarazu egin nahi diotela uste baitu.
- Bere lanean desantolatua da eta erraz galtzen du arreta.
- Lan-mahaia eta motxila desordenatuak daude. Biak orri eta paper solte eta zimurtuez beteta daude. Askotan materiala falta zaio. Liburuak eta koadernoak etxean egoten dira klasean egon behar dutenean, eta alderantziz.
- Oso letra txarra du eta koadernoak zikinak eta desordenatuak daude.
- Burutik pasatzen zaion edozer gauza esateko ikasgelan eteten du. Batzuetan hitz egiten dugunarekin lotuta dago eta beste batzuetan ez.
- Zerbait interesatzen ez zaionean, ez dago lan egiteko modurik. Hala ere, gai batzuei buruz dakiena harrigarria da.
- Gauzak (azterketak, jarduerak, etab.) berak nahi duen bezala ateratzen ez direnean, asko haserretzen da.
- Ez du zuzenketarik onartzen, ezta irakasleak zerbaitetan nahastu dela eta ezabatu egin behar duela esatea.

- Askotan badirudi ikasgelako errutinan galduta dagoela. Denbora asko behar du zer egin behar duen jakiteko.

5.2. Berritzegunearen protokoloa

Eusko Jaurlaritzak (1998) azaltzen duen bezala, ume batek behar bereziak dituela susmoak izanez gero, irakasleak zerbait arraro nabaritzen duenean eskolako psikopedagogoarekin harremanetan jarri behar da. Psikopedagogoarekin hitz egin, eta gelan nabaritu duen guztia transmititu eta argitu ondoren, psikopedagogoak berritzegunearekin harremanetan jarriko da.

Ondoren, umeari ebaluazio bat egingo zaio eta berritzeguneak psikopedagogoari txosten bat bidaliko dio. Ebaluazioa egin ondoren, eskolara bidaltzen den txosten psikopedagogikoak eduki zehatz batzuk eta orientazioa jasoko ditu. Hala badagokio, eskolatze-aldia zabaltzeko edo malgutzeko egokitzapena proposatuko du, bi kasuetan banakako curriculum-egokitzapenarekin (curriculumak jaso behar dituen alderdi berezien egokitzapenak zehaztuko dira).

Bukatzeko, eskolako psikopedagogoak txostena umeari irakasleari emango dio eta berritzeguneak bidalitako orientazioak jarraitzen hasiko dira.

5.3. Eskala australiarra

Lehen Hezkuntzan zehar, ohiz kanpoko portaera eta trebetasunak deigarriagoak egiten dira. Lehen Hezkuntzan dagoen ume batek Aspergerria duen jakiteko, Garnett eta Attwood-en (1998) eskala australiarraren bidez egin daiteke (ASAS). Aspergerren sindromerako eskala australiarra Aspergerren sindromea adierazten duten portaerak eta trebetasunak identifikatzeko diseinatu da, Lehen Hezkuntzan dauden haurren Aspergerren sindromearen adierazle izan daitezkeenak (ikusi I. eranskina).

Eskala hau irakasleak edo gurasoek erantzun behar duten galdetegi bat bezalakoa da. Irakasleak ezin du diagnostiko bat egin, baina galdetegi hau betetzea nahiko lagungarria izan daiteke informazioa lortzeko eta egoerarekin aurrera egiteko. Galdetegiak umeari ezaugarrien buruzko 24 galdera edota baieztapen ditu. Galdera edo baieztapen bakoitzak sailkapen eskala bat du (0-6), non 0-ak adin horretako haur batean espero den maila normala adierazten duen. Eskala honetan, 0-ak haurrak ez duela inolako arazorik bere adineko beste haurrekin alderatuz gero esan nahi du. Normaltasunetik zenbat eta gehiago urrundu, orduan eta gehiago hurbilduko gara 6. puntuaziora. Galdera gehien erantzuna 0

baino handiagoa bada, eta batez besteko puntuazioa 2tik 6ra bitartekoa bada (hau da, ohiko mailaren gainera nabarmen), ezin da automatikoki adierazi haurrak Aspergerren sindromea duenik. Hala ere, sindromea izateko posibilitatea existitzen da, eta ondorioz, osasuneko profesional batek balorazio bat egitea gomendagarria da.

6. Aspergerra duten umeen beharrak. Nola lagundu eskolaren barruan?

Aspergerrak ez du sendabiderik, horregatik, ume hauen beharrak kontuan hartu behar dira, sindrome hau duten umeak nola tratatu behar diren jakiteko, haien bizitza errazteko, erosotasuna sustatzeko eta laguntza modu egoki batean eskaini ahal izateko.

6.1. Lan autonomoa

Hasteko, lan autonomoari dagokionez, sindrome hau duten umeek kanpoko funtzio betearazle gisa bezala funtzionatzen duten tresnak behar dituzte. Laguntzeko, haurra lanean hasi aurretik, irakasleak puntu nagusi guztien laburbilketa egin dezake, edo prozesuaren urrats bakoitzean kontsulta daitekeen gida bat umeari eskaini (Thomas et al., 2004). Honez gain, lana ahalik eta urrats txikienetan sekuentziatzeak laguntzen du, urratsen laburpena banan-banan zehaztuz. Helburua ikasleak pixkanaka zerrenda barneratzea da eta azkenean, behar ez izatea. Horrela, umea autonomoagoa izaten lagunduko dugu. Honetaz aparte, lan-denboraren antolaketa bisuala egitea oso lagungarria da, hau da, umeak egin behar dituen lanen zerrendak, ordutegiak, agenda bisualak eta koadranteak erabiltzeko beharra du, baita markatzaile bisualak ere, haurrak denbora kudeatu ahal izateko (Díaz, 2014). Bukatzeko, umeak agenda bat behar du, denbora antolatzeko eta gurasoek euren seme-alabak duen etxeko lana jakiteko (Gallego, 2012).

6.2. Edukien eskuratzea

Edukien eskuratzeari buruz, Cotok (2013) dioen moduan, haur hauek informazioaren antolatzaileak bezala mapa kontzeptualak erabiltzeko beharra dute, informazioa plano abstraktu batean kokatzeko. Mapa hauei esker, kontzeptu batzuk beste batzuekin lotu, behar bezala antolatu eta, beraz, modu esanguratsuagoan ikasiko dituzte. Irakasleak egin behar duen beste gauza, edukien arteko erlazioa esplizitua egitea da. Informazio ezberdinen arteko antzekotasunak, ezberdintasunak, paralelismoak edo erlazioak esplizituki izendatzea komenigarria da. Oso argi dagoen zerbait eta besteek ikusteko arazorik ez izan arren, Aspergerra duen umea inferentziak egiteko gai izango dela pentsatzea akats bat da. Bukatzeko, umearen intereseko gaia ahal den neurrian erabiltzea aukera ona izan daiteke, bere arreta mantentzen saiatzeko.

6.3. Talde lana

Talde lanaren inguruan, kasu hauetan, Díaz-en (2014) hitzetan, irakasleak taldeak sortzea hoberena izango litzateke, umea baztertua ez sentitzeko. Horrela, irakasleak, gaitasun sozial hobeagoak eta empatia handiagoa dituzten umeak Aspergerra duen umearekin jartzeko aukera izaten du, berarekin pazientzia handiagoa izango dutenak. Ondorioz, gatazkak egoteko arriskua murrizten da, esperientzia guztientzat hobeagoa eta egokiagoa bihurtuz. Honetaz aparte, talde-lan baten arau ez-esperezituak eta funtzionamendua banaka lantzeko beharra dago, sindrome hau duen umearentzat oso lagungarria baita (nola jarri ados, zer egin zerbaitetan ados ez zaudenean...). Amaitzeko, irakasleak taldearen bilakaerari adi egotea oso garrantzitsua da, segimendu hurbilarekin, gaizkiulerturik egonez gero laguntza eskaintzeko.

6.4. Arreta

Arretari dagokionez, Cotok (2013) dioen moduan, irakasleak ume hau arbelatik ahalik eta hurbilen kokatzea hoberena da, horrela, umea eta arbelaren artean hizketan eta mugimenduan dagoen ikaskideen mundua ezabatzen dugu. Gainera, irakasleari errazagoa egingo zaio umea begiratzea, arretaz jarraitzen duen ala ez jakiteko, eta, hala ez bada, arreta dei txikia egin dezake. Honez gain, lehen aipatu den bezala, lana atal txikietan sekuentziatzea beharrezkoa da, umeak mantentzen duen arreta-denbora aprobetxatzeko. Jarraitzeko, irakasleak hurrengo agindua emateko, umeak aurreko agindua edo ataza bete arte itxaron behar du. Agindurik ematea beste bat exekutatzeko ari den bitartean ez da komenigarria. Horrela, haurrak ez du hainbeste informazio jasoko. Bukatzeko, lan denbora errefortzu gisa balio duten motibazio jarduerekin txandakatzea ideia ona izan daiteke (bere intereseko gaiarekin zerikusia badute, hobeto).

6.5. Gorputz Hezkuntza

Aspergerra duten pertsonen baldarkeria eta mugimenduaren berariazko aldaketak adierazten dituzten ezaugarriak dituzte (Attwood, 2002). Gorputz Hezkuntzako saioekin laguntzeko, saioa egituratu behar da eta Aspergerra duen umeari saioaren zehar egingo dena azaldu behar zaio. Beharrezkoa da jokoaren arauak aldez aurretik zehaztea, gaizki ulertuak ez egoteko. Eskakizun fisikoak umearen ahalmenetara egokitu behar dira, zailtasun fisikoak benetakoak direla eta umearen sindromeari dagozkiola ulertzea ezinbestekoa da. Honekin amaitzeko, umeak ikasgaia disfrutatzen saiatu behar da. Lan motorra benetan

behar dute euren gaitasunak hobetzeko, baina umea frustratuz eta desmotibatuz gero, ez du praktikatuko (Coto, 2013, Garcíak aipatua, 2018).

6.6. Lagunak eta hizkuntza erabiltzeko modua

Aspergerra duten umeek, gainerako haurrak bezala, lagunak izateko beharra eta nahia adierazten dute (Bauer, 2006). Eskolaren kanpoan lagunak izatea ohikoa izan arren, ume txikiak euren berdinekin ezartzen dituzten lehen harremanak ikastetxean izaten dira. Hau dela eta, ume hauek euren berdinekin harreman ona izaten dutela ziurtatu behar da, horrelako giroetan, jarrera guztiz desagokiak sortzeko arrisku handia baitago, bullying-era edo jazarpenera iritsi arte. Hau saihesten saiatzeko, irakasleak Aspergerra duen pertsonari ematen dion trataera zaindu egin behar du, ikasleei jarraitu beharreko ereduak izan dadin. Honez gain, elkarbizitzarako gaiari buruz hitz egitea onuragarria izan daiteke, ikasleek guztien ezberdintasunak ezagutzeko, errespetatzeko eta onartzeko. Gainera, ikasleekin zehazki ume honi buruz hitz egitea funtzionatzen du, haren jarreraren zergatia azaltzeko eta horrela, ikasleek ulertzeko. Gatazkaren bat egonez gero, umeek haien artean hitz egiteko eta konpontzeko aukera ematea baliogarria da, irakaslea bigarren plano batean geratzen den bitartean, bitartekari bezala (Díaz, 2014). Honetaz aparte, jarrera positiboak eta prosozialak indartzea lagungarria izan daiteke, ume hauek interakzio sozialaren bilaketa sustatzeko (Gallego, 2012).

Jarraitzeko, ikaskideekiko harremana hobetzeko, Aspergerra duten umeek hizkuntza erabiltzeko modua hobetzeko estrategia batzuk ikasteko beharra dute, elkarrizketa bat izateko arauak ezagutzeko (beste pertsona ez moztea, besteak entzutea, haien azalpenak ordenatzea, ahots tonu ezberdinak erabiltzea komunikatu nahi dutenaren arabera...). Honez gain, haur hauek irakasleak txisteak eta esaerak azaltzea behar dute, interpretazio literalak ez egiteko (Ramírez, 2011).

Ilido beretik, Coto (2013) azaltzen duen bezala, ikastetxearen jolastokian, norbait erne egon behar da abusu-egoerak ez egoteko. Batzuetan, sindrome hau duten umeek elkarrizketa bat hasteko profesional bat behar dute, jokoetan arauak ulertzeko eta parte hartzeko, azkena geratzen denean edo galtzen duenean onartzeko, besteei tranparik egiten ez uzteko, besteen sentimenduez ohartzeko, bere intereseko jokoak proposatzeko, etab. Horretarako, batzuetan jolastokian monitore edo laguntzeko heldu bat egotea beharrezkoa da.

6.7. Emozioak eta gogo-aldarteak

Bukatzeko, sindromea duen haurra arazo emozionalekin laguntzeko, umeari hobetzeko erremintak eman behar zaizkio. Aurretik aipatu diren laguntzeko estrategiak modu egoki batean aurrera eramanez gero, umeak arlo ezberdinetan aldaketa positibo bat esperimentatuko du, arlo emozionalean eragin positibo bat izanez. Hala ere, haurrak nola sentitzen den identifikatzeko eta adierazteko hainbat estrategia erabil ditzakegu, adibidez, emozioen termometroarekin lan egin, esperimentatzen duten emozioaren maila egokia zehazten laguntzeko. Honez gain, haurrak emozio-leherketa bat duenean, irakasleak umea leherketa hori eragin duen egoeratik irteten lagundu behar du, eta ondoren, ikaslea lasaitzen saiatu. Bukatzeko, irakasleak umearen alderdi positiboak indartu behar ditu beti, haurra bere autoestimua erregulatzen laguntzeko (Díaz, 2014).

7. Nola lagundu dezake familiak

Familiak edozein ikasleren hezkuntzan betetzen duen papera funtsezkoa da, eta are gehiago zailtasunen bat duten ikasleengan, familiaren papera erabakigarria baita haurraren garapenerako. Hau dela eta, Aspergerra duen ume bat laguntzeko, familiak etxean eta eskolan bete behar duen papera zehazteko beharra dago.

7.1. Familiaren papera eskolan

Comellas-ek (2009) esan zuen bezala, familia hezkuntza-prozesuaren hasierako arduraduna da, familian ematen dira lehenengo sozializazio-jarraibideak eta heldutasunera, zaintzara eta ardurara bideratutako lehen ikaskuntzak. Hau dela eta, familiak haurrengan eragina duela ulertzen da, jarraitzeko eredu bat emanez eta hartzen duen sozializazio-rolaren bidez aukerak eskainiz.

Kñallinsky-k (1999) azaldu zuen bezala, eskolak eta familiak norabide berean lan egitea garrantzitsua da, hau da, proiektu komun bat izatea: haurraren garapena. Horretarako, elkarlanean aritu beharko dute, eta haien arteko harremana zenbat eta hobea izan, orduan eta kalitate handiagokoa izango da haurrari emango zaion hezkuntza. Gallegok (2012) dioen bezala, ikasturtea hasi aurretik, tutoreak gurasoekin elkarrizketa bat izatea ezinbestekoa da, hasieratik lan-esparru bat finkatzen ahalbidetzeko. Lan-esparru horretan, bilerak egiten jarraitzea aurreikusiko da, ikaslearen integrazioaren jarraipena egiteko eta ikaslearen aurrerapenari buruzko informazioa trukatzeko, bai eta sor daitezkeen arazoei buruzkoa ere. Horrela, gurasoek eta irakasleek umeak izan ditzakeen beharrak ulertu ahal izango dituzte, laguntza eta estrategia egokiak sortzen eta koordinatzen joateko.

Familiak eskolan lagundu ahal izateko, bien artean konfiantzazko giroa sortu behar dute. Hau lortzeko, familia eskolaren espezifikotasuna ulertzen saiatu behar da (eta alderantziz). Honez gain, goian azaldu den bezala, komunikazioak garrantzi handia hartzen du, ezinbestekoa baita harremanetan egotea. Elkarrizketaren bidez zalantzak, kezkak, beharrak eta berritasunak transmititzen dira, eta familiak eskolan zer irakatsi nahi den jakiteko modua da, eta alderantziz. Komunikazioa bi testuinguruak ezagutzeko tresnarik onena da (Suárez, 2015).

7.2. Familiaren papera etxean

Bañak (2015) dioen moduan, familiak hezkuntza- eta estimulazio-rola du, baita normalizatzaile-barneratzailea ere. Familia lehen gizarte-ikaskuntzak ahalbidetzen dituen erreferentzia-taldea da, eta gizartean giro egoki eta ludikoan sartzeko aukera ematen du. Aspergerra duten umeei gizarte-balio, -jarrera eta -arauak argi ez dituztenean, zalantza horiek argitzeko familia ezinbestekoa da. Beraz, familiek Aspergerra duten umeak erreferentziako gizarte komunitatean edo inguruko beste batzuetan bizitzeko hezi eta prestatu behar dituzte (gizarte-arauak azalduz, jokaera egokia izateko gidatuz, eskolako lanarekin lagunduz...).

Ildo beretik, familiak Aspergerra duen ume bat planifikatzeko arazoekin laguntzeko, Gallegok (2012) hurrengo gomendioak ematen ditu: semeari eskolako ordutegia egiten laguntzea, astebetean lan egingo duen ikaskuntza-sektore bakoitzaren irudiekin; egutegi handia izatea, denboraren antolaketa argi ikusteko (eskola-egunak, jaiak, azterketak...); agenda bat eskaintzea, klaseetan egiten dituen jardueren piktogramarekin; eta curriculumentik kanpoko jardueren aurrerapena (irteerak, urtebetetzeak, etab.).

Aldiz, León-ek eta Díaz-ek (2012) honako gomendioak aipatzen dituzte: giro egituratua, fidagarria eta lasaia sortzea; gizartean onartuak dauden portaerak erakustea (agurrak, aurreikusitako erantzunak, interakziorako trebetasunak....); emozioak eta gorputzaren hizkuntza ezagutzen irakastea; ekintzek eta hitzek beste pertsonengan duten eragina ezagutzen erakustea; eta amorrutako "krisia" duenean bere burua lasaitzeko trebetasunak ikasten laguntzea.

8. Aurkitutako programen gabeziak

Lehen aipatu den bezala, Aspergerren sindromea nahiko berria da, eta ondorioz, sindrome honi buruzko artikulu zehatz gutxi daudela aipatu beharra dago. Hau kontuan izanik, sindrome hau duten umeak eskolaren barruan laguntzeko informazioa bilatzerakoan, ikasgelan ematen diren edukiak haur hauen beharretara egokitzeko estrategiak aurki daitezke, edo haurrak arlo edota gaitasun batzuk hobetzeko planak. Aldiz, ikaskideek nahasmendu hau normalizatzeko eta umearen integrazioa lortzeko diseinatuta dagoen esku-hartze bat aurkitzea ez da erraza.

Gida gehienetan ume hauen sozializatzeko zailtasunak aipatzen dira, eta arlo honetan irakasleak umea laguntzeko informazio pixka bat ematen dute, baina gainerako ikasleekin gaia lantzeko eta pausoz pauso jarraitzeko esku-hartze baten adibidea aurkitzea zaila da. Agertzen diren estrategia guztiak Aspergerra duen umeari bideratutakoak dira, edo bestela, bere beharretara egokitutako planak, berak bere jarrera aldatzeko, ez gelan inklusioa sustatzeko.

Hona hemen Aspergerra duten umeak eskolan laguntzeko planak bilatzerakoan Interneten aurki daitezkeen programa edo gida batzuen adibideak:

- *El Síndrome de Asperger - Estrategias Prácticas para el Aula: Guía para el Profesorado* (Thomas et al., 2004).

Gidaliburu honetan, Aspergerra duten hurrek harremanetarako eta interakziorako duten gaitasunei buruzko atal bat dago. Hala ere, gidan, irakasleak haur honi gizarte-arauak irakasten saiatzeko egin dezakeenaz baino ez da hitz egiten. Informazio hau ondo dago, umeak arau horiek ikasi behar dituelako, baina Aspergerra normalizatzeko eta umea integratzeko gainerako ikasleei zuzendutako estrategiarik ez da agertzen. Honez gain, ez dago pausoz pauso jarraitzeko argibiderik.

- *Síndrome de Asperger: guía práctica para la intervención en el ámbito escolar* (Coto, 2013).

Gida hau oso konpletoa da, eta garrantzi handiagoa ematen zaio gizarte-harremanen gaiari aurreko gidan baino. Gida honetan, ikaskideekiko harremanen, eskolako jazarpenaren eta integrazio-dinamiken inguruan hitz egiten da. Gida hau oso konpletoa izan arren, berriz ere Aspergerra duen ikaslearengan jartzen du arreta, gainerako ikasleek sindrome hau

normalizatzean eta onartzean zentratu beharrean. Egia da erabilgarriak diren estrategia solteak proposatzen dituela, batzuk ikasle guztien artean egiteko, baina pausoz pauso jarraitu daitekeen esku-hartze edo unitate didaktiko oso batek duen jarraitasuna eta murgilketa falta zaio.

Lehen azaldu den bezala, Interneten bilatzerakoan, gida gehienak irakasleentzako gidak dira, Aspergerra duten hurrei eskolako edukiekin laguntzen saiatzeko. Gelan Aspergerra lantzeko programak bilatzean, unitate didaktikoak zehazki, Aspergerra duten hurren ezaugarrietara egokituak dauden edozein gairi buruzko unitate didaktikoak baino ez dira agertzen (matematika, gaztelania eta literatura...), sindromea gainerako ikasleekin lantzeko eta benetako integrazioa sustatzeko unitate didaktikorik ez dago.

9. Nire proposamena

9.1. Proposamenaren azalpena

Lehen Hezkuntzako ikasleek Aspergerra ulertzeko eta onartzeko unitate didaktikoa

Bauerrek (2006) esan zuen bezala, Aspergerraren ezaugarri nagusienetako bat sozializazio-falta da. Haur hauek sozialki egokitzeko eta lagunak izateko nahia eta beharra adierazten dute, baina berezitasun batzuk dituztenez, batzuetan beste umeei haur hauek arrarotzat hartzen dituzte eta ez dute beraiekin egon nahi. Hau dela eta, batzuetan zapuztuta sentitzen dira, besteek azkenean baztertu egiten baitituzte. Lehen Hezkuntzan, ikaskideekin harremanak izaten saiatzen dira, eta saiakera horietan erraza da gatazkak eta gaizki-ulertuak gertatzea, gehienetan ikaskideek Aspergerraren inguruan informaziorik jaso ez dutelako eta ondorioz, ez dakite zein den haur hauekin jokatzeko modu egokia ezta laguntza eskaintzeko modu zuzena.

Hau jakinez gero, sindromea normalizatzeko arazorik handiena informazio falta dela ikusten da, beraz, irakasleek, ikaskideek, familiekin eta sindromea duen haur berak gaiaren inguruan informazioa jasotzea oso garrantzitsua da, Aspergerra onartzeko eta integrazioa sustatzeko lehenengo pausoa baita. Horrela, behin haurra ikasgelan ikaskideekin eroso sentitzen dela, eskolako gainerako arloak/esparruak lantzeko prestatuta egongo da.

Aurreko puntuan azaldu den bezala, Aspergerrari buruzko informazioa bilatzean, ikasgelan ematen diren eduki batzuk haur hauen beharretara egokitzeko estrategiak aurki daitezke, edo haurrak arlo edota gaitasun batzuk hobetzeko planak, baina ikaskideek nahasmendu hau normalizatzeko eta umearen integrazioa lortzeko diseinatuta dagoen esku-hartze bat aurkitzea zaila da.

Honen ondorioz, GrAL honetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako umeei sindrome honi buruzko informazioa emateko eta beraiekin gaia lantzeko unitate didaktiko bat diseinatu da, ikaskideek Aspergerra duen umea nola tratatu behar duten jakin dezaten, nahasmendua normalizatzeko eta onartzeko eta bazterketak saihesteko.

Esku-hartze hau hurrei eskolan integratzen lagunduko dieten jardueraz osatuta dago. Esku-hartzeak ikasleekin aurrera eramateko zazpi saioko unitate didaktikoa eta gurasoentzako aurkezpen bat ditu. Aipatutako aurkezpena bilera batean aurkeztuko da, ikaskideen

gurasoak informatzeko eta kontzientziatzeko helburuarekin; izan ere, umeei Aspergerraren ezaugarriak onartzeko, etxetik sostengua izatea beharrezkoa izango da.

Proposamen honen helburu orokorra umeei Aspergerra ezagutzen, ulertzen eta normalizatzen hastea da. Aldiz, helburu espezifikoak honako hauek dira: umeei gaiarekin lehenengo kontaktua izatea; Aspergerra duen umeei ikaskideekin hurbiltasuna lortzea; Aspergerra duen umeei ikaskideen pentsamenduak ulertzea eta berarenak adieraztea; laguntza eskaintzen ikastea; errespetua sustatzea; iritziak eta pentsamenduak modu asertibo batean esaten ikastea; errespetua eta laguntza sustatzeko bakoitzak egiten duena onartzen ikastea; eta inklusio eta integrazio orokorra sustatzea.

Modu honetan, hurrek, irakasleek eta familiek Aspergerraren inguruko informazioa jasotzen, eskolan sindromea normalizatzen eta onartzen eta Aspergerra duten umeen integrazioa sustatzen saiatuko da.

9.2. Ikasleriaren maila

Unitate didaktiko hau 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Gai hau azaltzeko eta aurrera eramateko modua aldatuz edozein adinetako ikasleekin landu daiteke, gainera, ikasleak zenbat eta txikiagoak izan, errazagoa izango da sindromea duen umea integratzea, ikasleak txikiak direnetik horrela hezten baditugu Aspergerraren ezaugarriak azkarrago normalizatuko dituztelako.

Dena den, unitate didaktiko hau planteatuta dagoen moduak ikasleak adin jakin bat izatea eskatzen du, aurrera eramango diren jarduerak ulertzeko eta erabiliko den metodologia erabiltzeko ikasleek zenbait gaitasun garatuta izan behar dituzte.

Honez gain, ezin dugu proposamenaren helburu nagusia ahaztu: Aspergerra duen umea integratzea. Esku-hartze bat haurrak txikiak zirenean praktikan jarri gero, edo irakasleak integrazioa eta inklusioa umeei txikiak zirenetik sustatzeaz arduratuz gero, Aspergerra duen haurra seguruenik integratuta egongo litzateke, eta beraz, ez zen beharrezkoa izango unitate didaktiko hau praktikan jartzea, arazorik ez dagoelako. Proposamen hau martxan jarri behar da sindromea duen umearen ikaskideek bere ezberdintasunak onartzen ez dituztenean, eskolara sartu zirenetik inoiz normalizatu ez dituztelako (edo normalizatzen irakatsi ez dietelako).

9.3. Metodologia

Unitate didaktiko hau aurrera eramateko Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) erabiliko da, unitate didaktikoaren bukaeran amaierako produktu bat baitago. Metodologia hau ikaskuntza aktiboen barne dagoen metodologia bat da, norabide bakarreko (irakasle-ikasle) irakaskuntza alde batera utziz eta kalitatezko ikaskuntza eskainiz (Trujillo, 2012).

Metodologia honen ezaugarriek ikasleetan oinarritutako irakaskuntza prozesua dela adierazten dute, ikaskuntza mota honek ikasleen interesak kontutan hartu eta hauen inplikazioa eskatzen baitu (Pozuelos eta Rodríguez, 2008). Hau da, POI metodologian ikasleak protagonistak dira, autonomia, inizatiba eta ardura lantzen baitira. Honez gain, lantzen diren edukiak errealitatean oinarrituta egoten dira eta ikasleentzat esanguratsuak izan beharko dira (Blanco, 2017). Gainera, POI metodologiaren bidez talde-lana eta partaidetza lantzen da, metodologia honen helburu nagusienetako bat talde kooperatibo giroa sortzea da (Martín eta Rodríguez, 2015).

Unitate didaktiko hau aurrera eramateko, proiektuarekin hasi baino lehen ikasleek eduki berri batzuk ikasiko dituzte, eta ondoren, galderak, eztabaidak, aurreikuspenak, ideia berriak eta esperimenduak sortuko dira. Goian aipatu den bezala, metodologia honek kooperazioa bilatzen du, beraz, orokorrean ikasleak talde kooperatiboetan arituko dira. Jarduera batzuk garatzeko ikasleak banaka egongo dira, hausnarketa pertsonala egiteko, eta beste batzuetan gela osoa elkarrekin, baina orokorrean talde-lana nagusituko da. Horregatik, talde kooperatiboen metodologia azaltzea beharrezkoa da ere. Metodologia honen inguruan hitz egiteko, Donairek, Gallardok eta Maciasek (2006) egindako lana oinarritzat hartuko da:

Talde-lana atazak ikasle-talde txikietan antolatzeko modu sistematikoa da. Ikasgelan lan egiteko modu bat da, non irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren erantzukizuna ez baita irakasleena soilik, ikasle taldearena baizik. Ikasleen arteko elkarreraginak eta elkarrekiko laguntzak modu jarraituan gertatzen direnean modu sendoagoan ikasten da.

Metodologia honetarako, gela lau-bost ikasleko talde heterogeneotan antolatuko da. Talde bakoitzak modu autonomoan lan egingo du berdinen laguntza nagusiarekin eta, behar izanez gero, irakaslearen orientazioekin. Horrela, ikasleek erantzukizun bikoitza dute: irakasleak irakasten diena beraiek ikastea eta taldeko kideek ere ikas dezaten laguntzea.

Taldeko kideak galderak bata besteari azaltzen saiatuko dira, eta hipotesiak ere egingo dituzte, okertzeko arriskuan egon arren. Horrela, ikasleek garrantzi handiko balioak landuko

dituzte, hala nola elkarriketa, besteak entzutea, lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea. Bitartean, irakaslea bigarren maila batean geratzen da, maisutasunez parte hartzen ez duen tokian, baina ikaskuntza-prozesua errazteko parte hartzen du, ikasleak bere ikaskuntzaren eraikuntzan gidatzen baititu.

9.4. Lotura curricularra

Lotura curricularrari dagokionez, diseinatutako unitate didaktikoa Heziberri 2020an (2015) oinarrituko da:

- *Konpetentziak*

Zehar konpetentzien barruan, unitate didaktiko hau elkarbizitzarako konpetentzia sustatu eta indartzera bideratuta dago. Konpetentzia honen bidez, honako osagai hauek landuko dira:

- Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.
- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.

Oinarrizko diziplina barneko konpetentziei dagokienez, unitate didaktikoa konpetentzia sozial eta zibikoan oinarrituko da. Zehazki, hurrengo osagai hauek landuko dira:

- Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan.
- Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkertasuna adierazita, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.
- Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko erreferente unibertsala eta norberak herritar gisa dituen

eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko erreferentea; eta parte-hartzeko, begiruneko, justizia sozialeko eta elkartasuneko jokabideak lantzea, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.

- *Helburuak*

Unitate didaktiko honen bidez hurrengo helburu hauek lortu nahi dira, curriculumaren kompetentzia sozial eta zibikoan oinarriturik:

- Nork bere balio-sistema eratzea, oinarri-oinarrizkoa bada ere, bizitza-proiektua hartan oinarritzeko. Horretarako, arrazionaltasuna, autoerregulazio emozionala eta enpatia erabiliko dira, egoerei buruzko iritzi morala autonomia eta objektibotasun nahikoaz emateko.
- Bizikidetzara-arauek proposatu, egin eta errespetatzea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkak eraldatzeko, guztien artean ingurune atsegin iraunkor bat sortzeko.
- Edozein motatako ezberdintasunak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatzeko.
- Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantziaz parte hartzea, eta ikustea elkarrizketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoak konponbidea emateko, elkarbizitza ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratu txarrik egon ez dadin lortzeko.

- *Edukiak*

Edukien inguruan, balio sozial eta zibikoaren barnean, kompetentzia sozial eta zibikoaren barruan agertzen diren edukiak landuko dira:

Alde batetik, 2. zikloko lehenengo multzoaren (eduki komunak) barnean, arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarritzko zehar-kompetentziekin lotutako eduki hauek landuko dira:

- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea, haien arteko harremanak indartuz eta errespetua sustatuz.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea, arau batzuk jarraitu behar dituztela ikasiz, klaseko giroa hobetzeko.
- Gatazkak kudeatzen jakitea, gatazkak inizatibarekin ebazten ikasteko eta arazoak modu asertibo batean konpontzeko.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea, enpatia landuz eta gaizki jokatzuz gero erantzun egoki bat izaten ikasiz.

Beste aldetik, 2. zikloko bigarren multzoaren (bizikidetzaz eta gizarte-balioak) barnean, Giza Eskubideak elkar bizitzarako markoaren hurrengo edukia landuko da:

- Diskriminazio eta bidegabekeria soziala esanbidez baztertzea, pentsamendu kritikoa eta balio propioak garatuz.

Bukatzeko, 2. zikloko bigarren multzoaren (bizikidetzaz eta gizarte-balioak) barnean, elkarbizitzarako prozedura eta jarrera hau landuko da:

- Hainbat egoerari lotutako kasu errealen bilaketa eta azterketa kritikoa, taldean.
 - Dilema moralen kasu praktikoak taldean ebaztea.
 - Egoera polemiko eta eztabaidatueta hainbat ikuspegi eta perspektiba kontuan hartzeko prestasuna.
- *Ebaluazio irizpideak eta lorpen-adierazleak*

Honako hauek dira kompetentzia sozial eta zibikoaren inguruan (balio sozial eta zibikoaren barnean) kontuan hartuko diren ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak:

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-adierazleak
Bizikidetzara-arauek proposatzea, eratzea eta betetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzara-arauek errespetatzen ditu, eta taldean giro ona lortzen laguntzen du. - Hizkera positiboa erabiltzen du pertsonen arteko harremanetan pentsamenduak, asmoak eta iritziak komunikatzeko. - Gatazkan dauden aldeen emozioak, sentimenduak, pentsamendu posibleak eta ikuspuntuak aztertzen ditu.
Gizarte-erantzukizuna eta -elkartasuna eta justizia soziala barneratzea	<ul style="list-style-type: none"> - Desoreka-egoerak eta bidegabekeriak hobetzeko ekintzak proposatzen ditu. - Gizarte-desberdintasunak identifikatzen eta kritikoki aztertzen ditu. - Elkartasuna erakusten du.
Eskubide-berdintasunaren aldarrikapena errespetatzea, inor ez diskriminatzea edozein ezaugarri pertsonal edo sozialengatik	<ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideen izaera unibertsala argudiatzen du. - Ikastetxeko zein adiskideen inguruneko diskriminazio-egoeren aurrean jarduteko neurriak aztertzen eta proposatzen ditu.
Haurren eskubideak zer garrantzitsuak diren jakitea eta egoera errealak aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren oinarriko eskubideak azaltzen ditu. - Haur orok laguntza jasotzearen garrantzia justifikatzen du.

9.5. Ikasleekin egiteko unitate didaktikoaren diseinua

Unitate didaktiko hau aurrera eramaten hasi baino lehen, irakasleak Aspergerra duen umearekin hitz egingo du. Pertsona baten nahasmendua norberaren intimitateari dagokion informazio pribatu eta konfidentziala da, beraz, bere baimenarekin erabili behar da beti. Gaiaren inguruan klasean hitz egiteko baimena edukiz gero, umeari bere esperientzia lehenengo pertsonan kontatu nahi duen galdetuko zaio, eta denbora guztian zehar irakasleak umearen erosotasuna ziurtatu behar du.

Lehen aipatu den bezala, unitate didaktiko hau zazpi saioz osatuta dago. Unitate didaktikoaren laburpen-taula ikusteko begiratu II. eranskina, eta unitate didaktikoaren diseinua ikusteko begiratu III. eranskina.

9.6. Ebaluazio-prozesua

Ebaluazio osoago bat lortzeko bi ikuspuntu ezberdin kontuan hartu behar dira: irakaslearena eta ikasleena. Umeek unitate didaktikoaren helburuak lortu dituzten baloratzeko, hiru ebaluazio mota egingo dira. Ikasleek euren burua nola ikusi duten jakiteko, bakoitzak autoebaluazio bat beteko du eta honez gain, taldeka jarriko dira gainerako taldeen azken proiektuen heteroebaluazio bat egiteko. Dena den, ezin da ahaztu umeak ez direla helduak bezalakoak, eta batzuetan ez dira guztiaz ohartzen edo egiazale izaten, horregatik, irakasleak ikasle bakoitzaren ebaluazio bat egingo du ere.

9.6.1. Irakasleak egin beharreko ebaluazioa

Irakasleak ez du soilik emaitza kontuan hartuko, prozesua baizik (eta ikasleek teoria praktikara eramaten duten ala ez). Irakasleak ikasle bakoitza indibidualki ebaluatzea garrantzitsua da, pertsona bakoitza ezberdina baita eta unitate didaktikoa egin ondoren emaitza ezberdinak egon daitezke. Hobekuntzarik egon den ebaluatzeko, irakasleak curriculumeko lorpen-adierazleak jasotzen dituen errubrika baten bidez ikasle bakoitzaren ebaluazioa egingo du (ikus VII. eranskina).

9.6.2. Ikasleen autoebaluazioa

Lehen aipatu den bezala, ikasle bakoitzak bere autoebaluazioa egitea garrantzitsua da, zerbait ikasi edo aldatu duten benetan dakiten bakarrak beraiek baitira. Gainera, gai hau ez da soilik klasera mugatzen, ikasitakoa patioan, jantokian edo ikastetxean bertan ez dagoen beste lekuetara eta egoetara aplikatzen da, eta irakasleak gela barruan gertatzen ez dena ezin du behatu ezta kontrolatu. Autoebaluazioa egiteko, ikasle guztiek galdetegi berdina beteko dute (ikus VIII. eranskina). Irakasleak galdetegi hau banatzeko momentua erabakiko du, adibidez, unitate didaktikoaren azken saioaren bukaeran edo hurrengo eguneko klase batean.

9.6.3. Talde bakoitzak gainerako taldeen aurkezpenak ebaluatzeko heteroebaluazioa

Unitate didaktikoaren diseinuan azaltzen den bezala, talde bakoitzak proiektu bat aurkeztuko du, eta proiektu horiek ez dira guztiak berdinak izango, talde bakoitzak egin nahi duen proiektu mota egiteko aukera izango baitu. Ikasleei erantzukizuna emateko, taldeka beste taldeen proiektuen aurkezpenak ebaluatzea interesgarria izan daiteke. Modu honetan, talde lana sustatzeaz gain, ikasleek irakasleak beraiengan konfiantza duela sentituko dute.

Ebaluazio hau egiteko, talde bakoitzak bere aurkezpena egin ondoren, gainerako taldeek minutu batzuk izango dituzte (2-3 minutu) talde horren ebaluazioa egiteko (ikusi IX. eranskina).

9.7. Gurasoentzako aurkezpena

Lehen aipatu den bezala, esku-hartze honek ikasleekin unitate didaktikoa bat aurrera eramateaz gain, ikaskide guztien gurasoekin bilera bat egitea proposatzen du. Bilera horretan, helduei aurkezpen bat erakutsiko zaie (ikusi X. eranskina), ikaskideen gurasoak informatzeko eta kontzientziatzeko helburuarekin; goian azaldu den bezala, umeek Aspergerraren ezaugarriak onartzeko, etxetik sostengua izatea beharrezkoa izango da. Bilera hau ikasleekin unitate didaktikoa hasi baino lehen egingo da, modu honetan gurasoak prest egongo dira laguntzeko edota haien seme-alaben galderak argitzeko.

Aurkezpena ordu baten inguruko iraupena izango du, eta irakasleak aurkeztuko du, modu honetan irakasleak informazio guztia birpasatuko du eta gainera, gurasoei hurbiltasuna erakutsiko die. Aurkezpena bukatu ondoren, gurasoek galderak egiteko denbora utziko da.

9.8. Kronograma/egutegia

Unitate didaktiko hau oraindik praktikan jarri ez den arren, haurrak gogaitu gabe dinamikan sartzeko modurik onena asteen bi saio egitea izango litzateke. Honez gain, ikastaroaren zatirik handienean haurra eroso eta integratuta egongo dela ziurtatzeko, neguko oporrak hasi baino lehen esku-hartzearekin hastea gomendagarria da (Urriari-Azaroan). Kronograma egoki baten adibidea ikusteko begiratu XI. eranskina.

10. Ondorioak

Argi dago haur guztiek eskolan orientazioa eta laguntza behar dutela, baina irakasle garen aldetik, oso adi egon behar gara behar bereziak dituzten pertsonen. Ikasle bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu behar ditugu, guztiak gelan eroso senti daitezen, modu egoki batean hazi eta garatzeko aukera emanaz.

Aspergerren sindromeari buruz dagoen desinformazioa sinestezina da, izan ere, honi buruzko artikulu zehatz gutxi aurki daitezke. Gainera, ia ezinezkoa da ikasgelan egiteko curriculum-egokitzapenetarako ez diren esku-hartzeak aurkitzea. Interneten aurkitzen dugun informazio guztia edukietan zentratzen da, Aspergerra duen ikaslea "hobeto ikas dezan" nola lagundu azalduz, hau da, gidaliburu gehienek, ikasgai guztiak beraien beharretara moldatzea bilatzen dute eta inklusioa bigarren plano batean geratzen da. Gradu amaierako lan honetan zehar esan bezala, integrazioa beharrezkoa da, baina honi buruzko informazioa bilatzean, oso zaila izan da esku-hartze osoak topatzea, jarduerak jarraitu ahal izateko. Gainera, aurkitzen ditugun estrategia guztiak Aspergerra duen ikasleak "ahokatzeko" egin behar dituen ahaleginetara bideratuta daude, hau da, estrategia guztiak sindromea duen umeak bere jarrera aldatzeko bideratuta daude, edo bestela, irakasleak umea bere jokaera aldatzen laguntzeko planteatzen dira, baina inoiz ez da hitz egiten ikaskideak hezteari buruz, haiek inklusioa susta dezaten.

Modu honetan, arazoa, Aspergerra duen umearena dela ematen du, eta ez dibertsitatea onartzen ez duen gizartearena. Badirudi soilik normalizatuta dagoen bazterketa bat geldiaraztean zentratzen garela, bazterketa hori inoiz ez hastean zentratu beharrean.

Esan bezala, gida gehienak irakasleentzako gidak dira, Aspergerra duten haurrak eskolako edukiekin laguntzen saiatzeko. Gelan Aspergerra lantzeko programak bilatzean, ume hauen sozializatzeko zailtasunak aipatzen dira. Edozein esku hartze diseinatu aurretik, gaiaren inguruko ahalik eta informazio gehien izatea ezinbestekoa da, baina beharrezkoa da ere, gaia beste hurrekin tratatzea, inklusioa bigarren plano batean ez erortzeko eta berdintasuna tratatzeko.

Laburbilduz, Aspergerra duen haur bat integratzeko, haurrak bere jokabidea aldatzea eta gizarte-arauak ikastea lagungarria da, baina ez da nahikoa; honetaz gain, gainerako ikasleak balioetan hezi behar ditugu, eta inklusioan eta errespetuan oinarritutako hezkuntza aurrera eramaten saiatu behar gara.

Ondorioz, gomendagarria izango litzateke eskola guztietan lan honetan planteatzen den unitate didaktiko baten modukoa izatea, pausoz pauso jarraitu daitekeena. Proposamen honek integrazioa sustatzea du helburu; gainerako umeek Aspergerra ulertzea eta normalizatzea bilatzen du, sindromea duen haurrak berak bere nahasmenduaz gehiago ezagutzen duen bitartean. Izan ere, bizi garen gizartea gero eta anitzagoa da eta gu, irakasleok, saiatu behar gara egon daitezkeen ezberdintasun guzti horiek ezabatzen, ume guztien erosotasuna ziurtatuz. Argi dago edukiak moldatzea lagungarria dela haur hauentzako, baina integrazioari ez diogu duen garrantzirik kendu behar, ikaskuntza esanguratsua izateko. Bi atal hauek elkarlanean jartzea ezinbestekoa da, bata ez duelako zentzurik bestea gabe.

11. Bibliografía

American Psychiatric Association (1994). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (4th. ed). Washington.

American Psychiatric Association. (2013). *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (5th ed.). Washington.

Attwood, T. (2002). El síndrome de Asperger. *ED.: Paidós, Barcelona*.
<http://www.autismonavarra.com/wp-content/uploads/2014/12/Sindrome-de-Asperger.pdf> -tik berreskuratua.

Baña Castro, M. (2015). *El rol de la familia en la calidad de vida de y la autodeterminación de las personas Trastorno del Espectro del Autismo*. Ciencias Psicológicas. Universidad de A Coruña, España.
http://www.scielo.edu.uy/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1688-42212015000300009 -tik berreskuratua.

Bauer, S. (2006). El síndrome de Asperger. Rochester, Nueva York.
<http://ardilladigital.com/DOCUMENTOS/DISCAPACIDADES/TGD-TEA/SINDROME%20ASPERGER/EI%20S%20de%20Asperger%20-%20Bauer%20-%20art.pdf>
- tik berreskuratua.

Blanco Pérez, I. (2017). *POI proiektuetan oinarritutako ikaskuntza*. Arbel: Hezkuntza aldizkaria.

Cobo, M. C., eta Morán, E. (2014). *El Síndrome de Asperger. Intervenciones Psicoeducativas*. Zaragoza: Asociación Asperger y TGDs de Aragón.
https://sid-inico.usal.es/idocs/F8/FDO26529/sindrome_asperger.pdf -tik berreskuratua.

Comellas, M.J. (2009). *Familia y escuela,; compartir la educación*. Barcelona, España: GRAÓ de IRIF, S.L.

Coto Montero, M. (2013). *Síndrome de Asperger: guía práctica para la intervención en el ámbito escolar*.

<http://190.57.147.202:90/xmlui/bitstream/handle/123456789/744/Sindrome-de-Asperger-Guia-practica-para-intervencion-en-ambito-escolar.pdf?sequence=1> - tik berreskuratua.

Díaz Jiménez, I. (2014). *Metodología para niños con síndrome de Asperger en Educación Infantil*. Universidad internacional de La Rioja. Facultad de Educación.
<https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/2508/diaz.jimenez.pdf?sequence=1> -tik berreskuratua.

Donaire Castillo, I., Gallardo Arrebola, J., eta Macías Aguado, S. P. (2006). *Nuevas metodologías en el aula: aprendizaje cooperativo*. Revista digital.
<https://cmapspublic3.ihmc.us/rid=1GLSWDJ11-MTW5MJ-H5F/Nuevas%20Metodolog%C3%ADa%20en%20el%20Aula%20-%20Aprendizaje%20Cooperativo.pdf> -tik berreskuratua.

Eusko Jaurlaritz (1998). *Normativa sobre el alumnado con necesidades educativas especiales en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz.
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_def/adjuntos/especiales/110018c_Pub_EJ_nee_normativa_c.pdf -tik berreskuratua.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2015). 235/2015 dekretua, abenduaren 22koa. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Gallego Matellán, M. (2012). *Guía para la integración del alumnado con TEA en Educación Primaria*. Salamanca: Instituto universitario de integración en la comunidad.
<https://drive.google.com/file/d/1HVolqJrDVpbkI9COCEBcnd1A2NTOkqCD/view> -tik berreskuratua.

García Albert, A. (2018). *Síndrome de Asperger y Educación Física*. Revista digital de Educación Física. https://emasf.webcindario.com/Sindrome_de_asperger_y_EF.pdf -tik berreskuratua.

Hervás, A., Maristany, M., Salgado, M., eta Sánchez Santos, L. (2012). Los trastornos del espectro autista. *Pediatr Integral*, 16(10), 780-94.
<https://www.pediatriaintegral.es/wp-content/uploads/2012/xvi10/04/780-794%20T.autism.pdf> - tik berreskuratua.

Jorroto Lloves, R. (2012). *Educación física y Síndrome de Asperger. Algunas recomendaciones prácticas*. <https://www.asperger.es/> -tik berreskuratua.

Kñallinsky, E. (1999). *La participación educativa: familia y escuela*. Universidad de las Palmas de Gran Canaria: Cometa.

León Aguilar, M. J., eta Díaz Rosal, C. (2012). *Manual de estrategias para padres de familia de niños que sufren Síndrome de Asperger en edad escolar*. Universidad de San Carlos de Guatemala. <http://www.repositorio.usac.edu.gt/10503/1/T13%20%282064%29.pdf> - tik berreskuratua.

Llacuna Morera, J., eta Pujol Franco, L. (2004). *La conducta asertiva como habilidad social*. NTP 667. http://eoepsabi.educa.aragon.es/descargas/G_Recursos_orientacion/g_5_habilidades_social_es/g_5.3.hhss_asertivas/1.4.La%20conducta%20asertiva.pdf -tik berreskuratua.

Málaga Diéguez, I. (2014). *Los trastornos del aprendizaje. Definición de los distintos tipos y sus bases neurobiológicas*. https://www.sccalp.org/documents/0000/1526/BolPediatr2010_50_043-047.pdf -tik berreskuratua.

Manzano Pauta, D. E. (2008). *Inclusión educativa para niños con Síndrome de Asperger en la escuela primaria*. Universidad del Azuay. <http://201.159.222.99/bitstream/datos/7644/1/06680.pdf> - tik berreskuratua.

Maristany, M. (2002). *El alumno con Síndrome de Asperger en la Escuela Primaria*. Servicio de Neurología, Hospital Sant Joan de Deu, Barcelona. <http://www.jmunoz.org/files/NEE/asperger/IJORNADAS ASPERGER Y EDUCACION/S.%20Asperger%20y%20EDUCACION/EI%20alumno%20SA%20en%20la%20Escuela%20Primaria.M.Maristany.pdf> -tik berreskuratua.

Martín, A., eta Rodríguez, S. (2015). *Motivación en alumnos de Primaria en aulas con metodología basada en proyectos*. Revista de estudios e investigación en psicología y educación.

Pozuelos, F. J., eta Rodríguez, F. D. P. (2008). *Trabajando por proyecto en el aula. Aportaciones de una investigación colaborativa*. Revista de Investigación en la Escuela.

Ramírez Sánchez, D. M. (2011). Estrategias de intervención educativa con el alumnado con síndrome de Asperger. Málaga.

https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/iee/Numero_45/DOLORES_MARIA_RAMIREZ_SANCHEZ_1.doc.pdf - tik berreskuratua.

Suárez Rico, E, (2015). *Relación centro escolar-familia en casos de niños con Trastorno del Espectro Autista*. Universidad de Oviedo.

https://digibuo.uniovi.es/dspace/bitstream/handle/10651/31506/TFM_Eva%20Su%20E1rez%20Rico.pdf;jsessionid=F57C90363E37941138E3E82D747212B2?sequence=3 -tik berreskuratua.

Thomas, G., Barratt, P., Clewley, H., Joy, H., Potter, M. eta Whitaker, P. (2004). *El Síndrome de Asperger - Estrategias Prácticas para el Aula: Guía para el Profesorado*. AAPC Publishing.

<http://www.jmunozy.org/files/NEE/asperger/IJORNADAS ASPERGER Y EDUCACION/S.%20Asperger%20y%20EDUCACION/SA%20Estrategias%20pr%C3%A1cticas%20para%20clase-guia%20profesores.G%20Thomas.pdf> -tik berreskuratua.

Trujillo Sáez, F. (2012). *Enseñanza basada en proyectos: una propuesta eficaz para el aprendizaje y el desarrollo de las competencias básicas*. Revista Eufonía - Didáctica de la Educación Musical. Universidad de Granada.

12. Eranskinak

I. eranskina - Eskala australiarra

		Rara vez	Frecuentemente				
1	¿Carece el niño de entendimiento sobre cómo jugar con otros niños? por ejemplo, ¿Ignora las reglas no escritas sobre juego social?	1	2	3	4	5	6
2	Cuando tiene libertad para jugar con otros niños, como en la hora del recreo o almuerzo ¿evita el niño el contacto social con los demás? por ejemplo, busca un lugar retirado o se va a la biblioteca.	1	2	3	4	5	6
3	¿Parece el niño ignorar las convenciones sociales o los códigos de conducta, y realiza acciones o comentarios inapropiados? por ejemplo, hacer un comentario personal a alguien sin ser consciente de como el comentario puede ofender a otros.	1	2	3	4	5	6
4	¿Carece el niño de empatía, es decir, del entendimiento intuitivo de los sentimientos de otras personas? por ejemplo, no darse cuenta que una disculpa ayudará a la otra persona a sentirse mejor.	1	2	3	4	5	6
5	¿Parece que el niño espere que las demás personas conozcan sus pensamientos, experiencias y opiniones? por ejemplo, no darse cuenta que usted no puede saber acerca de algún tema en concreto porque usted no estaba con el niño en ese momento.	1	2	3	4	5	6
6	¿Necesita el niño una cantidad excesiva de consuelo, especialmente si se le cambian cosas, o algo le sale mal?	1	2	3	4	5	6
7	¿Carece el niño de sutileza en sus expresiones o emociones? por ejemplo, el niño muestra angustia	1	2	3	4	5	6

	o cariño de manera desproporcionada a la situación.						
8	¿Carece el niño de precisión en sus expresiones o emociones? por ejemplo, no ser capaz de entender los niveles de expresión emocional apropiados para diferentes personas.	1	2	3	4	5	6
9	¿Carece el niño de interés en participar juegos, deportes o actividades competitivos? 0 significa que el niño disfruta de ellos.	1	2	3	4	5	6
10	¿Es el niño indiferente a las presiones de sus compañeros? 0 significa que el niño sigue las últimas modas en, por ejemplo, juguetes o ropas.	1	2	3	4	5	6
11	¿Interpreta el niño de manera literal todos los comentarios? por ejemplo, se ve confundido por frases del tipo "estás frito", "las miradas matan", o "muérete".	1	2	3	4	5	6
12	¿Muestra en niño un tono de voz no usual por ejemplo, que parezca tener un acento "extranjero" o monótono, y carece de énfasis en las palabras clave.	1	2	3	4	5	6
13	¿Muestra su hijo desinterés en parte de la conversación cuando habla con él/ella? Ej.: No pregunta ni comenta sus ideas con otros/as.	1	2	3	4	5	6
14	Cuando se conversa con él ¿Mantiene el niño menos contacto ocular del que cabría esperar?	1	2	3	4	5	6
15	¿Tiene el niño un lenguaje excesivamente preciso o pedante? por ejemplo, habla de manera formal o como un diccionario andante.	1	2	3	4	5	6
16	Presenta el niño problemas para reparar una conversación? por ejemplo, cuando el niño está confuso no pide aclaraciones, sino que cambia a un	1	2	3	4	5	6

	tema que le es familiar, o tarda un tiempo indecible en pensar una respuesta.						
17	¿Lee el niño libros en busca de información, sin parecer interesarle los temas de ficción? por ejemplo, es un ávido lector de enciclopedias y de libros de ciencias, pero no le interesan las historias de aventuras.	1	2	3	4	5	6
18	¿Posee el niño una extraordinaria memoria a largo plazo para eventos y hechos? por ejemplo, recordar la matrícula de hace varios años del coche del vecino, o recordar en detalle escenas que ocurrieron mucho tiempo atrás.	1	2	3	4	5	6
19	¿Carece el niño de juego imaginativo social? por ejemplo, no incluye a otros niños en sus juegos imaginarios, o se muestra confuso por los juegos de imaginación de otros niños.	1	2	3	4	5	6
20	¿Está el niño fascinado por un tema en particular, y colecciona ávidamente información o estadísticas sobre ese tema de interés? por ejemplo, el niño se convierte en una enciclopedia andante en conocimientos sobre vehículos, mapas, o clasificaciones de ligas deportivas.	1	2	3	4	5	6
21	¿Se muestra el niño exageradamente molesto por cambios en su rutina o expectativas? por ejemplo, se angustia si va a la escuela por una ruta diferente.	1	2	3	4	5	6
22	¿Ha desarrollado el niño complejas rutinas o rituales que deben ser completados necesariamente? por ejemplo, alinear todos sus juguetes antes de irse a dormir.	1	2	3	4	5	6
23	¿Tiene el niño una coordinación motriz pobre? por ejemplo, no puede atrapar un balón.	1	2	3	4	5	6

24	¿Tiene el niño un modo extraño de correr?	1	2	3	4	5	6
----	---	---	---	---	---	---	---

Garnett eta Attwood-en (1998) eskala australiarra Aspergerren sindromea identifikatzeko

II. eranskina - Ikasleekin egiteko unitate didaktikoaren laburpen-taula

Saioak	1. Jarduera	2. jarduera	3. jarduera
Lehenengo saioa	Gaia aurkezteko bideo bat ikusi	Ikaskideei informazioa eskaini eta Aspergerra duen umeak bere esperientzia kontatu	Ikasle guztiei pentsamendu positiboak adierazi
Bigarren saioa	Aspergerraren ezaugarriak birpasatu eta laguntzeko moduak pentsatu	Aurreko jardueraren lana kartulina batera pasatu	Egindako lana aurkeztu
Hirugarren saioa	Modu asertibo batean jokatzeko egitura bat ikasi	Jokaeraren inguruko galdetegia eta konpromisua bete	Bidegabekeriak kontatzeko postontzi bat sortu eta "zaintzaileen" rolak hartzen hasi
Laugarren saioa	Egoera zehatz batzuetan Aspergerra duen umea laguntzeko moduak pentsatu	Inklusioa, berdintasuna eta errespetua adierazten duen pankarta bat egin	-
Bosgarren saioa	Talde bakoitzak bere proiektu mota aukeratu	Proiektua diseinatzen hasi	-
Seigarren saioa	Apergerrari buruzko proiektua entseatu		-
Zazpigarren saioa	Proiektuak hezkuntza-komunitateari aurkeztea.		-

III. eranskina - Unitate didaktikoaren diseinua

Lehenengo saioa

Saioaren helburu orokorra: Apergerrarekin harremana izaten hastea.

Iraupena: Ordu bateko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Gaia aurkeztea eta umeek gaiarekin lehenengo kontaktua izatea.

Denbora: 15 minutu.

Materiala: Arbela digitala.

Azalpena

Saioarekin hasteko, umeek arbela digitalean Aspergerrari buruzko bideo hau ikusiko dute: https://www.youtube.com/watch?v=mzI33DR2rnM&ab_channel=InstitutoAGL.

Bideoa ikusi ondoren, 5 minutuko hausnarketa kolektibo bat egingo dugu, bideoan agertzen den protagonistaren berezitasunen eta beharren inguruan hitz egiteko. Honez gain, umeek galderak egiteko denbora utziko da. Modu honetan ikasleek lehenengo kontaktua izango dute gaiarekin.

2. jarduera

Jardueraren helburua: Aspergerra duen umeak bere esperientzia kontatzeko aukera izatea eta ikaskideekin hurbiltasuna lortzea.

Denbora: 15 minutu.

Materiala: Arbela digitala.

Azalpena

Goian aipatu den bezala, unitate didaktikoa hasi baino lehen irakasleak ume honekin hitz egingo du. Ikasleari bere esperientzia pertsonala kontatu nahi duen galdetuko zaio, eta berak nahi izatekotan, aurkezpen bat (umeak nahi duen moduan) prestatuko du, irakasle edota umearen gurasoen laguntzarekin. Aurkezpena bukatu ondoren, galderak egiteko denbora utziko da.

Modu honetan, ikasle honen adierazpen askea eta ikaskideekin hurbiltasuna lortzea bilatzen da, hauek informazioa izateko eta Aspergerra duen umea ulertzen hasteko.

Kontuan hartu behar da agian haurrak ez duela bere esperientzia edota bizitzeko modua kontatu nahi, beraz, aurkezpen bat egin nahi ez badu, irakasleak gainerako ikasleei modu inbertsonalago batean sindromea azalduko die.

3. jarduera

Jardueraren helburua: Interakzioaren bidez Aspergerra duen umeak ikaskideen pentsamenduak ulertzea eta berarenak adieraztea

Denbora: 30 minutu.

Materiala: -.

Azalpena

Aspergerra duten umeek zailtasunak dituzte besteen sentimenduak, seinaleak eta jokaerak ondo hautemateko eta ulertzeko. Honen ondorioz, batzuetan besteen pentsamenduak ez dakite interpretatzen eta gauzak espresuki esan behar zaizkie. Honengatik, Aspergerra duen haurra baztertuta edo ezberdina sentitu ez dadin edo besteek berarekin egon nahi ez dutela pentsa ez dezan, hurrengo ariketa egingo da:

Ikasle guztiak borobil batean eseriko dira eta banan-banan, ikasle guztien txanda izango da. Pertsona baten txanda denean, borobilaren ordena errespetatuz, ikasle bakoitzak pertsona horren inguruan zerbait positibo esan behar du, hau da, txanda duen pertsonarengandik gustatzen zaion zerbait.

Modu honetan inklusioa bilatzen da, Aspergerra duen haurrak baloratua sentituko da eta gainerako haurrek berak indarguneak dituela pentsatzen dutela ikusiko du. Gainera, berak bere pentsamenduak adierazteko aukera izango du ere, interakzioa bultzatuz.

Ikas-taldearen giroaren arabera, posible da ikasleak gauza positiboak aurpegira esaten ez ausartzea edo asko kostatzea. Hau dela eta, jarduera hau egiteko beste alternatiba bat dago: ikasle bakoitzak paper bat hartu eta goialdean izena jarri. Paper bakoitza ikaskide guztien eskuetatik pasatuko da eta pertsona horri buruzko zerbait positibo idatzi beharko dute. Modu honetan, ariketa era pribatuago batean egiten denez umeek lotsa galduko

dute, eta gainera, ikasle bakoitzak bere papera etxera eramateko aukera izango du.

Bigarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Aspergerra ezagutzen, ulertzen eta normalizatzen jarraitzea.
Iraupena: Ordu bateko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Aspergerra ezagutzea eta ikasitakoa barneratzea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: Post-its, arkatzak eta orriak.

Azalpena

Irakasleak ikasle bakoitzari bi post-it banatuko dizkio. Bakarka, ikasle bakoitzak post-it batean Aspergerraren inguruan ikasitako ezaugarri/zailtasun bat idatziko du, eta bestean, horrelako umeak laguntzeko zerbait.

Hau egin ondoren, lau talde egingo dira eta taldekideen artean idatzitakoa koparatuko dute. Behin ideiak konparatuta, talde bakoitzak orri batean bi zerrenda osatuko ditu: ezaugarrien/zailtasunen zerrenda eta laguntzeko moduen/ideien zerrenda. Zerrendak betetzeko momentuan bururatzen zaizkien ideia berri guztiak apuntatu ditzakete.

2. jarduera

Jardueraren helburua: Aspergerra ezagutzea eta ulertzea eta laguntzen ikastea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: Aurreko jardueraren zerrendak, kartulinak, errotulagailuak eta kartulinak apaintzeko materiala.

Azalpena

Irakasleak talde bakoitzari kartulina bat banatuko dio, alde zuzenetik egindako zerrenden

zirriborroa modu txukun eta apainduan kartulinara pasatzeko. Ikasle guztiek parte hartu behar dute eta kartulinak apaintzeko nahi duten materiala erabiltzen utziko zaie.

3. jarduera

Jardueraren helburua: Aspergerra ezagutzea eta ulertzea eta laguntzen ikastea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: Kartulinak eta zelo-papera.

Azalpena

Saioa bukatzeko, talde bakoitzak beste taldeen aurrean bere kartulina aurkeztuko du, kartulina nola egin duten eta idatzitako ideiak eta informazioa azaltzeko. Lau talde egin direla kontuan izanik, talde bakoitzak bere kartulina erakusteko 5 minutu izango du.

Saioaren bukaeran, talde bakoitzak bere kartulina ikasgelaren nahi duten tokian zintzilikatuko du.

Hirugarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Bakoitzak bere jarrera hobetzen hastea eta bazterketak ez egoteko ikasle guztiak laguntzen ikastea.

Iraupena: Ordu bateko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Iritziak eta pentsamenduak modu asertibo batean esaten ikastea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: -

Azalpena

Nahasmendu hau duten pertsonen normalean intereseko gai bat izaten dute, eta beti gai horren inguruan hitz egiten egotea ohikoa da. Honez gain, ume hauek ezagutzen ez dituzten idatzi gabeko arau sozial ugari daude, beraz, batzuetan nahigabe beste umeei

gustatzen ez zaien gauzak egiten dituzte. Hau hobetzeko eta Aspergerra duen ikasleak arau sozial batzuk ikasteko, hurrengo jarduera egingo da:

Hasteko, irakasleak asertibitatea zer den modu sinple batean azalduko du: gure iritziak, gustuak eta interesak adierazteko eta defendatzeko gai izatea, baina besteei kalterik edo erasorik egin gabe, hau da, errespetua galdu barik (Llacuna eta Pujol, 2004).

Ondoren, irakasleak sentimenduak adierazteko egitura bat erakutsiko die: “(hau) egiten duzunean, (horrela) sentitzen naiz”. Modu honetan, ikasleek euren sentimenduak azalatu ditzakete eta arazoei buruz modu asertibo batean hitz egin, errespetua galdu gabe. Honez gain, umeei ulertu behar dute inoiz ez dela beranduegi barkamena eskatzeko, beraz, irakasleak ikasleak barkamena eskatzera animatu behar ditu, nahiz eta inork ezer ez aurpegiratu, haiek edonori barkamena eskatu behar diotela sentituz gero, barkamena eskatzeko.

Azalpena eman ondoren, irakasleak ikasleei altxatzeko eskatuko die, norbaiti zerbait esan nahi izanez gero momentu horretan egiteko, betiere, landutako egitura erabiliz. Bukatzeko, irakasleak umeei egitura hori gustatzen ez zaien zerbait ikusten duten bakoitzean beti erabiltzeko esango die.

2. jarduera

Jardueraren helburua: Errespetua eta laguntza sustatzeko bakoitzak egiten duena onartzen ikastea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: Galdetegiak eta konpromisuak.

Azalpena

Jarduera honetan bakarkako lana nabarrituko da. Ikasle bakoitzak irakasleak banatutako paper bat hartuko du eta 10 minutu izango dituzte haien jokaeren inguruko galdetegia betetzeko (ikusi IV. eranskina). Ondoren, beste 10 minutu izango dituzte ikaskide bezala hobetzeko konpromisu bat betetzeko (ikusi V. eranskina). Bi orri hauek pribatuak izango dira, hau da, bakoitzak berea gordeko du nahi duen momentuan begiratu ahal izateko.

3. jarduera

Jardueraren helburua: Arazoen aurrean laguntza eta errespetua sustatzea.

Denbora: 20 minutu.

Materiala: Kartoizko kutxa, orri zuriak, artaziak, pegamentua, errotulagailuak, kartulina bat eta paper-zeloa.

Azalpena

Jarduera honek bi zati izango ditu:

1. Kartoizko kutxa bat apaintzea.
2. Kartulina batean klaseko izen guztiak idaztea (zerrendaren ordenean).

Alde batetik, kartoizko kutxaren erabilera honako hau izango da: hortik aurrera, edonork edozein motatako errespetu falta edo bidegabekeriaren kasuren bat ikusiz gero, paper batean idatzi eta kutxan sartzeko aukera izango du (postontzi bat bezala). Astean behin, kutxa irekiko da, eta irakasleak banan-banan paper guztiak irakurri ostean, garrantzitsuenak ozenki komentatuko ditu, guztien artean landu ahal izateko eta astero gai honi buruz zerbait gehiago ikasteko.

Beste aldetik, kartulina batean zerrendaren ordenean izen guztiak idatziko dira, eta horma baten zintzilikatuko da. Astero, lau pertsonak “zaintzaileen” rola hartuko dute (aste berri bat hasten denean zerrendaren hurrengo laurak izango dira). Ume hauek errespetu falta edo bidegabekeriaren kasuren bat ikusiz gero, ume hori lagundu behar dute eta arazoa konpontzen lagundu, hau da, egoeran eskua sartu. Astea bukatzen denean, zaintzaile bakoitzak bere izenaren alboan (kartulinar) laguntza eskaini duen egoera bat idatzi behar du.

Hau guztia egiteko, umeak bi taldetan banatuko dira. Lehenengo 10 minututan, talde batek kutxa apaintzen duen bitartean (ume guztiak ez pilatzeko eta orden bat jarraitzeko, orri zurietan marrazkiak edo esaldiak marraztuko dituzte eta bukatzen dutenean moztu eta kutxan itsasteko altxatuko dira), beste taldea kartulinar izenak idazten eta kartulina apaintzen egongo da. Ondoren, 10 minutu pasa eta gero, aldaketa egongo da: Kartulinarekin hasi den taldea kutxa apaintzen hasiko da eta besteak, kartulina apaintzen jarraituko du.

Hau guztiarekin, zailtasunak edota arazoak dituzten ikasleekiko enpatia garatu nahi da, barre egin edo baztertu ordez, ikasleek pertsona horiei oztupoak gainditzen laguntzeko. Horrela, gelaren barruan giro inklusibo bat sortzen saiatuko da, ikasle guztiak eroso sentitzeko guztien artean laguntza eskainiz eta jasoz.

Laugarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Aspergerra normalizatzea eta inklusio orokorra sustatzea.
Iraupena: 70 minutuko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Aspergerraren ezaugarriak antzematea eta laguntzen jakiten ikastea (kasu praktikoak).

Denbora: 40 minutu

Materiala: Egoera ezberdinak dituzten txartelak, orriak eta arkatzak.

Azalpena

Ikasleak launaka jarriko dira eta talde bakoitzak egoera bat idatzita duen txartel bat hartuko du (ikus VI. eranskina). Taldeka, tokatu zaien egoera irakurri eta orri zuri batean, egoera horretan egonez gero laguntzeko egingo luketena edota jokatu luketen modua idazteko 10 minutu emango zaie (idatzi aurretik euren artean hitz egin beharko dute adostasun batera heltzeko).

Ondoren, talde bakoitzak 5 minutu izango ditu bere egoeraren inguruan hitz egiteko: Lehenengo, egoera ozenki irakurri eta gainontzeko taldeek egoera horren inguruan bere iritzia emateko aukera izango dute. Jarraian, egoera hori eduki duen taldearen ikasleek beraiek egingo zenuketena azalduko dute. Bukatzen dutenean, hurrengo taldearen txanda izango da, eta horrela talde guztiek bere egoera aurkeztu arte.

2. jarduera

Jardueraren helburua: Ume guztien inklusioa eta integrazioa sustatzea.

Denbora: 30 minutu.

Materiala: Pankarta, errotulagailuak, hatz-pintura, pintzelak eta paper-zeloa.

Azalpena

Ikasleak launaka jarriko dira eta 10 minutu izango dituzte inklusioa, berdintasuna eta errespetua adierazteko esaldi bat asmatuko dute. Ondoren, talde guztiak hurbildu eta ordu erdi bat izango dute asmatutako esaldiak hatz-pintura, pintzelak eta errotulagailuak erabiliz pankarta handi batean idazteko. Esaldiak idazteaz gain, umeek material hau erabil dezakete pankarta apaintzeko.

Saioaren bukaeran, korridorera aterako dira pankarta horma batean zintzilikatzeko.

Bosgarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Apergerraren inguruko proiektu bat aukeratzea eta prestatzen hastea.

Iraupena: Ordu bateko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Talde bakoitzak bere proiektua aukeratzea.

Denbora: 15 minutu

Materiala: -

Azalpena

Behin Aspergerraren, errespetuaren eta inklusioaren inguruan saio batzuk aurrera eraman direla, ikasleak bosnaka kokatuko dira taldeak eratzeko. Ondoren, irakasleak talde bakoitzak Aspergerrean oinarritutako proiektu bat egingo duela azalduko du (Aspergerra normalizatzeko, sindrome hau duten umeak laguntzeko, inklusioa sustatzeko...). Talde bakoitzak nahi duen proiektu mota egin dezake, nahi duen moduan, baina ikasleei ideiak

emateko irakasleak hurrengo adibideak emango ditu: ipuin bat, aurkezpen bat, mural bat, hausnarketa bat, antzerki bat, bideo bat, laguntzeko gida bat etab.

Ikasleek proiektua aukeratu baino lehen, irakasleak proiektu hori gurasoen, eta beste irakasleen eta ikasleen aurrean aurkeztuko dutela azalduko die. Honez gain, proiektu bakoitzak 10-15 minutuko iraupena izan behar duela esango die.

Ondoren, talde bakoitzak denbora izango du nahi duen proiektu mota aukeratzeko. Horretarako, taldearen barruan dauden ikaskideen artean ados jarri beharko dira.

2. jarduera

Jardueraren helburua: Proiektua diseinatzen hastea.

Denbora: 45 minutu

Materiala: Orriak eta arkatzak.

Azalpena

Taldeek 45 minutu izango dituzte proiektua asmatzen eta diseinatzen hasteko. Horretarako, talde bakoitzaren barruan ikaskideen artean kooperazioan arituko dira, denen ideiak errespetatuz eta guztien parte hartzea sustatuz. Edozer gauza apuntatzeko, irakasleak orriak banatuko ditu.

Seigarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Aspergerraren inguruko proiektua entseatzea.

Iraupena: Ordu eta erdiko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Talde bakoitzak bere proiektua diseinatzen bukatzea eta entseatzen hastea.

Denbora: Ordu eta erdi.

Materiala: Talde bakoitzak behar duen materiala.

Azalpena

Saioaren lehenengo 30 minutuetan, irakasleak taldeei denbora emango die aurreko saioan hasitako diseinuak bukatzeko. Talderen batek lehenago bukatzen badu, irakasleak taldekoei entseatzeko esango die, eta talderen batek denbora gehiago beharrez gero, denbora gehiago emango zaio.

Taldeek euren proiektua diseinatzen bukatzen dutenean, ordu bat izango dute euren proiektuaren aurkezpena entseatzeko. Irakasleak ikasleek denbora gehiago behar dutela ikusiz gero, hurrengo egunen jolas-orduetan gelan geratzeko aukera emango die, entseatzeko aprobetxatzeko.

Zazpigarren saioa

Saioaren helburu orokorra: Ikasleek proiektuak hezkuntza-komunitateari aurkeztea.

Iraupena: Ordu eta erdiko iraupena.

1. jarduera

Jardueraren helburua: Talde bakoitzak hezkuntza-komunitatearen aurrean bere proiektua aurkeztea.

Denbora: Ordu eta erdi.

Materiala: Talde bakoitzak bere aurkezpena egiteko behar duen materiala.

Azalpena

Irakasleak ikasleen gurasoak eta ikastetxearen beste irakasle eta ikasleak aurkezpenak ikustera gonbidatuko ditu. Talde bakoitzak 15 minutuko aurkezpena egingo du, unitate didaktikoan zehar ikasitakoa transmititzeko eta errespetua eta inklusioa sustatzeko asmoz.

Hurrengo puntuan azaltzen den bezala, aurkezpen bakoitzaren bukaeran etenaldi txiki bat egingo da (2-3 minutukoa) talde guztiek momentu horretan ikusi duten aurkezpena ebaluatzeko.

IV. eranskina - Hirugarren saiorako galdetegia

Galdetegia

1. Ikasleak errespetuarekin tratatzen duzu?

- A. Beti B. Batzuetan C. Inoiz ez

2. Norbaitek laguntza behar duenean, eskaintzen diozu?

- A. Beti B. Batzuetan C. Inoiz ez

3. Nola sentitzen zara ikaskide bat beste batekin gaizki portatzen ikusten duzunean?

4. Zer egiten duzu normalean ikaskide bat beste batekin gaizki portatzen ikusten duzunean?

5. Nola jokatu behar zenuke kasu horietan, edo nola jardun nahiko zenuke?

6. Ez baduzu horrela jokutzen, zergatik ez duzu egiten?

7. Inoiz egin duzu norbait gaizki sentiaraztea (nahiz eta nahi gabe izan)? Horrela bada, damututa zaude?

8. Barkamena eskatu zenion pertsona horri?

- A. Bai B. Ez C. Ez dut gogoratzen

9. Zure ustez, zerbait aldatu beharko zenuke eskolan giro hobea egon dadin laguntzeko? Zer aldatuko zenuke zure jarreran?

10. Orokorrean, ikaskide ona zarela pentsatzen duzu?

V. eranskina - Hirugarren saiorako konpromisua

Nire konpromisua

Izena:

Zer egingo dut ikaskide bezala hobetzeko eta beste ikaskideak laguntzeko?

Sinadura: _____.

VI. eranskina - Laugarren saiorako egoeren txartelak

A egoera

Patioan zaudete guztien artean hitz egiten eta ondo pasatzen, baina Aspergerra duen ume bat denbora guztian zehar gai baten inguruan hitz egiten dago, beti gai berdinari buruz. Bera ez da honetaz konturatzen gai hori benetan gustatzen zaiolako, eta ez da konturatzen besteei gai hori ez zaiela hainbeste interesatzen. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

B egoera

Patioan zaudete eta beste gelako ume batekin hitz egiten zaudete. Ume honek ez daki zer den Aspergerra eta ondorioz, Aspergerra duen ume baten aurrean denbora osoan zehar txisteak eta ironiak erabiltzen ditu. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

C egoera

Irakaslea gaixorik jartzen da eta bitartean ordezkari bat etortzen da. Irakasleak jarduerak eta ariketak egiteko beste modu batzuk erabiltzen ditu. Aspergerra duen ume bat hau guztia ikusten duenean oso urduri jartzen da. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

D egoera

Irakasleak ariketa bat bakarka egiteko eskatu dizue, baina nahiko ariketa zaila eta luzea da. Aspergerra duen ume bat ariketa egiten saiatzen da baina ez zaio ondo ateratzen, beraz, nahiko frustratuta dagoela ikusten duzu. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

E egoera

Taldeka lan egiten zaudete eta gauza bat egiteko akordio batera iritsi behar zarete. Badakizue Aspergerra duen ume bati taldeka lan egitea kostatzen zaiola eta bere

ikuspuntua aldatzea zaila dela, beraz, ez zarete ados jartzen. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

F egoera

Eskolan zaudete eta ume batek Aspergerra duen ume bati iseka egiten ari diola ikusten duzu, txantxak egiten eta ahots-tonu itsusi batekin hitz egiten dio. Zuek badakizue ume hauek horrelako gauzetaz ez direla ohartzen, beraz berak normaltzat hartzen du. Zer egingo zenukete egoera honen aurrean?

VII. eranskina - Irakasleak umeak ebaluatzeko erabiliko duen errubrika

	Ez dago hobekuntzarik	Progresio konstantean dago	helburu guztiak lortu ditu	Argudioak/Behaketak
Arauek eta ikaskideak errespetatzen ditu (giro ona lortzen laguntzen du)				
Aktiboki parte hartu du				
Bere ideiak modu asertibo batean adierazten ditu eta besteenak errespetatzen ditu				
Bere taldearen proiektuak ikasitakoa islatzen du				
Elkartasuna erakusten du				
Bidegabekeriak ikusten dituztenean laguntza eskaintzen du				
Diskriminazio-egoeren aurrean neurriak proposatzen ditu				
Aspergerra duen umea laguntzen du				
Aspergerra duen umearekiko jarrera hobetu da				
Ume guztien ezberdintasunak onartzen ditu eta inklusioa eta integrazioa sustatzen saiatzen da				
Orokorrean teoria praktikara eramaten duela erakusten du				
Esku-hartzea egin ondoren hobekuntza bat ikus daiteke				

VIII. eranskina - Ikasleek autoebaluazioa egiteko galdetegia

1. Jardueretan aktiboki parte hartu duzu?

- A. Beti B. Gehienetan C. Batzuetan D. Inoiz ez

2. Zure ikaskideak errespetatu dituzu eta giro ona lortzen lagundu duzu?

- A. Beti B. Gehienetan C. Batzuetan D. Inoiz ez

3. Zure ideiak eta iritziak modu egoki batean adierazi dituzu?

- A. Beti B. Gehienetan C. Batzuetan D. Inoiz ez

4. Besteen ideiak eta iritziak errespetatu eta kontuan hartu dituzu?

- A. Beti B. Gehienetan C. Batzuetan D. Inoiz ez

5. Bidegabekeriak edo diskriminazio-egoerak ikusten dituzunean laguntza eskaintzen duzu? Erantzuna bai bada, idatzi adibide bat.

6. Ume guztien integrazioa lortzen laguntzen duzu?

- A. Beti B. Gehienetan C. Batzuetan D. Inoiz ez

7. Garrantzitsua iruditzen zaizu errespetua eta berdintasuna sustatzea? Zergatik?

8. Unitate didaktikoa egin ondoren, zerbait ikasi duzu? Zer?

9. Orain Aspergerra hobeto ulertzen duzu?

- A. Bai B. Ez C. Gutxi gora behera

10. Aspergerra duten umeak laguntzen ikasi duzula uste duzu? Zer egingo zenuke laguntzeko?

11. Zure taldearekin ondo konpondu zara? Eroso sentitu zara? Zergatik?

12. Zure taldeak egindako proiektua ondo dagoela uste duzu? Beste pertsonak informatzeko lagungarria izan dela pentsatzen duzu?

13. Unitate didaktikoaren edo Aspergerraren inguruan zerbait esan nahi duzu?

14. Orokorrean, unitate didaktikoan zehar ondo lan egin duzula pentsatzen duzu?

IX. eranskina - Talde bakoitzak gainerako taldeak ebaluatzeko tresna

Borobildu galdera bakoitzean 1etik 5era bitarteko zenbaki bat, 1 puntuazio baxuena eta 5 altuena izanik (taldekideekin adostasunera iritsi behar da)					
Gure izenak:					
Ebaluatzen dugun taldeko ikasleen izenak:					
Aurkezpena modu argi eta txukun batean egin dute	1	2	3	4	5
Aurkezpenaren atzean lana dagoela nabaritzen da	1	2	3	4	5
Taldekide guztiek parte-hartze berdina izan dute aurkezpenean	1	2	3	4	5
Transmititu duten informazioa egokia da eta Aspergerrarekin zerikusia du	1	2	3	4	5
Aurkezpen honek inklusioa, berdintasuna eta errespetua sustatzen lagun dezake.	1	2	3	4	5
Aurkezpen honek lagungarria izan da Aspergerraren inguruan beste pertsonak informatzeko	1	2	3	4	5
Orokorrean aurkezpen hau ondo egon dela pentsatzen dugu	1	2	3	4	5

Aurkezpen honetan gustatu zaigun zerbait:

Hobetu beharrekoa:

ASPERGERRA



Aspergerra normalizatu nahi dugu

Ikasgelan unitate didaktiko batekin hasiko gara, baina errespetua, laguntza eta inklusioa sustatzeko gurasoen laguntza behar dugu. Ikasleak informatuz gain, gurasoek gai honi buruzko informazioa jaso behar dute ere, etxean gai honen inguruan umeak hezten jarraitzeko, sindromea normalizatzeko asmoz.

Aspergerra normalizatu nahi dugu

Zer da Aspergerra?

Asperger-en sindromea espektro autista nahasteen (TEA) barruan dago. Espektro autistaren nahasteek nahasmenduen talde heterogeneo bat osatzen dute. Nahasmendu horiek haurtzaroan hasi eta bizitza osoan irauten dute, elkarrekotasun sozialean, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioan eta portaeraren eredu errepikakor eta murriztaileetan eragina izanik.

Zergatik dira ezberdinak ume hauek?

Aspergera duten haurrek hurrengo ezaugarrien presentzia dute:

1. Interakzio sozialaren aldaketa kualitatiboa, gutxienez hurrengo bi ezaugarrien bidez adieraztua:
 - a. Hitzekoak ez diren hainbat portaeren erabileraren aldaketa nabarmena, hala nola begi-kontaktua, aurpegi-adierazpena, gorputz-jarrerak eta interakzio sozialerako keinu arautzaileak.
 - b. Subjektuaren garapen-mailan egokiak diren lankideekin harremanak izateko ezintasuna.
 - c. Gozamenak, interesak eta helburuak beste pertsona batzuekin partekatze berezko joera ez izatea (adibidez, beste pertsona batzuei objektu interesgarriak ez erakustea edo ekartzea).
 - d. Elkarrekikotasun sozial edo emozionalik eza.

Zergatik dira ezberdinak ume hauek?

2. Portaera, interes eta jarduera murriztaile, errepikakor eta estereotipuen ereduak, gutxienez ezaugarri hauetako batek adieraziak:

- a. Ohiz kanpoko interes-eredu estereotipatu eta murriztaile batekiko edo batzuekiko kezka xurgatzailea, bai intentsitateagatik edo helburuagatik.
- b. Funtzionalak ez diren errutina edo erritual espezifikoetara atxikimendu zorrotza.
- c. Manierismo motor estereotipatuak eta errepikakorrak (adibidez, eskuak edo hatzak astindu edo biratzea, edo gorputz osoaren mugimendu konplexuak).
- d. Objektuen zatiekiko etengabeko kezka.

Zergatik dira ezberdinak ume hauek?

3. Nahasteak norbanakoaren jarduera sozial, laboral eta beste arlo garrantzitsu batzuen narriadura esanguratsua eragiten du.

4. Hizkuntzaren atzerapen orokor esanguratsurik ez dago (adibidez, 2 urterekin hitz errazak erabiltzen dituzte; 3 urterekin, komunikazio-esaldiak erabiltzen dituzte).

5. Ez dago atzerapen nabarmenik ezagutzaren garapenean, ezta adinak berezko dituen autolaguntzako trebetasunen garapenean, egokitze-portaeran (gizarte-elkarrekintzaz ezberdina) eta haurtzaroan inguruneari buruzko jakin-minean.

6. Ez ditu betetzen garapenearen beste nahaste orokor baten edo eskizofreniaren irizpideak.

Nolakoak dira ume hauek?

- Interes bereziko eremuak
- Sozializazio falta
- Hizkuntza erabiltzeko modua
- Errutinak

Hauen ondorioz, gainerako haurrak urrundu egin daitezke, ume hauen berezitasunak ulertzen ez dituztelako

Zailtasunak lagunekin (lagunak izateko beharra dute)


Aspergerra duten umeek hizkuntza erabiltzeko modu berezi bat dute:

- Elkarrizketaren kontrola izaten baitute, haien berdinekin hitz egiteko beti gai berdina erabiliz.
- Euren hizkera formalegia eta pedantezia entzuten da, eta ondorioz, izan daiteke gainerako haurrek haur hau arrarotzat hartzea eta berekin hitz egin nahi ez izatea.
- Arazoak dituzte informazio inplizitua antzemateko, hala nola hitzik gabeko hizkuntza, ahots-tonuak, keinuak, aurpegi-keinuak, etab., eta ondorioz, zaila da beste pertsonak nahi dutena identifikatzea, haien jarrera, besteen jarreraren arabera aldatzeko.

Zailtasunak lagunekin (lagunak izateko beharra dute)


Aspergerra duten umeek ezagutzen ez dituzten idatzi gabeko arau sozial ugari daude:

- Ironiak eta txisteak.
- Gainerako haurrek jolas sozial eta sinboliko bat dute, Aspergerra duten haurrek ulertzen ez dutena
- Gehienetan, lagunak konfundituta sentitzen dira ulertzen ez dituzten portaera eta jarreraren aurrean.




Ikaskideekin harremanak izaten saiatzen dira, euren adineko haur guztiak bezala lagunak izateko beharra dute. Saiakera horietan erraza da gatazkak eta gaizki-ulertuak gertatzea.

Askotan, ikaskideek eta lagunak baztertu egiten dituzte, “jarrera ezberdinak” dituztelako. Aspergerra duen haurrak, nekatuta eta frustratuta, batzuetan bakarrik egotea nahiago du, eta besteengana hurbiltzen ez da saiatzen.



Eskolaren kanpoan lagunak izatea ohikoa izan arren, ume txikiak euren berdinekin ezartzen dituzten lehen harremanak ikastetxean izaten dira. Hau dela eta, ume hauek euren berdinekin harreman ona izaten dutela ziurtatu behar da, horrelako giroetan, oso erraza delako jarrera guztiz desagokiak sortzeko arriskua agertzea, bullying-era edo jazarpenera iritsi arte.



Horrelako egoerak saihesteko, Aspergerra duen haurrak gizarte-arauak ulertzeko esfortzu bat egin behar du. Baina beharrezkoa da, halaber, eskolan zein etxean gai hau lantzea, ikaskideek aniztasuna normalizatu eta ume guztien integrazioa sustatu ahal izateko.




Berezitasunak normalizatzeko beharra dago

Galderarik?




Eskerrik asko etortzeagatik

XI. eranskina - Kronograma

astelehena	asteartea	asteazken a	osteguna	ostirala	larunbata	lgandea
			1	2	3	4
5 Gurasoentza ko aurkezpena	6 1. saioa	7	8	9 2. saioa	10	11
12	13 3. saioa	14	15	16 4. saioa	17	18
19	20 5. saioa	21	22	23 6. saioa	24	25
26	27	28 7. saioa	29	30	31	